

Arama bizirik



Landa Garapen Jardunaldiak



Sanandresak Ormaiztegin

-%25

erainoko beherapena
Swissflex somier artikulatu
edo ohe besaulkietan, Irailaren
26.tik Abenduaren 15.era

Ohe-komplementuetan aukera zabalena



NAGUSIA, 40 - C.P. 20200 - BEASAIN - TEL/FAX: 943 88 68 51

SWISSFLEX

GOIERRITARRAKO OFIZIAL BAKARRIA

TEMPUR

PRODUTOS PARA ALZAR LA PRESION

NEGUAN ERE PREZIOAK BEHERA



Lo
egiten
badakizu
amesten ikasi...

amets
ATSEDENERAKO SISTEMAK



ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA



SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK



BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620

POLIURETANOZKO LEIHOAK



ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307

www.anzizar.com



BERMEA
3URTE
100.000 Km

EUROLAN 4x4-k zerbitzu berria ireki du Goierriako: ANZIZAR



THE LAND ROVER EXPERIENCE

ANZIZAR Beasain-Zumarraga errepidea Telefonoa: 943 88 17 00

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean)

124 posta-kutxa ORDIZIA

Tfnoa: 943 88 96 12

Faxa: 943 88 27 19

Posta elektronikoa:

goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Publizitatea: Argider Mujika

Zenbaki honetako kronista eta

kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Aitor Tello, Doltza Barandiaran, Aimar Maiz, Zelai Amenabarro, Aitziber Murua, Maite Lasa eta Landarlan.

Fotokonposizio eta maketazioa:

Goierritarra

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 7.000 ale

SSN: 1132-0907



Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen
derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaularitzako
Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta
GOIERRIKO UDALEK
diruz lagundutako
aldizkaria



Ekaitz Goikoetxea, Aitor Sarriegi eta Iker Zubeldia

Gipuzkoako bertsolari txapelketako finalerdietan

Gipuzkoako bertsolari txapelketa finalerdietan bete-betean sartua dago dagoeneko. Abenduaren 14ko finalaren aurretik, 3 saio jokatu dira. Aurreko kanporaketako eta final laurdenetako saioak jokatu, hiru goierritarrek lortu dute finalerdietarako txartela: Ekaitz Goikoetxea eta Aitor Sarriegi beasaindarrak eta Iker Zubeldia zegamarrak. Goikoetxea eta Sarriegik hain zuzen ere, puntuaketari dagokionean, puntuaziorik altuenak lortu dituzte final laurdenetako saioetan.

Zarautzen eta Tolosan

Azaroaren 16an lehen-final erdietako saioa jokatu zen Eskoriatzan eta hurrengo biak, Zarautzen eta Tolosan jokatu dira. Ekaitz Goikoetxea eta Aitor Sarriegi Zarautzen arituko dira, azaroaren 23an, arratsaldeko 5etan, kiroldegian. Iker Zu-

beldia, berriz, Tolosan lehiatuko da, azaroaren 30ean, arratsaldeko 5etan, Leidor zineman. Saio bakoitzeko lehenak zuzenean pasatuko dira finalera eta gainerako 5ak, puntuazioaren arabera.

Sarriegi beteranoa, Goikoetxea eta Zubeldia berriak

Aitor Sarriegik ez du lehenengo aldia Gipuzkoako txapelketan. Goikoetxeak eta Zubeldiak lehenengo aldia dute eta finalerdietaraino iritsi dira Gipuzkoako bertsolari txapelketan. Bidean gelditu dira irailaren 26an txapelketan hasi ziren gainerako 4 bertsolariak; Iñaki Apalategi beasaindarra, Joxe Munduate eta Iban Ur-dangarin ataundarrak eta Alaitz Sarasola ordiziarra hain zuzen ere.

Goierritarra Goierriz kanpo jaso nahi dutenentzat, posta gastuak ordaintzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia:
Ipar Euskal Herria eta Europa:
Europaz kanpo:

urtean 12 euro
urtean 24 euro
urtean 36 euro

Juan Mari Olano Espainiaratu dute

Azaroaren 13an Espainiaratu zuten Juan Mari Olano gaintzarra. Soto de Realgo kartzelan sartzeko agindua eman du Baltasar Garzon epaileak. Amnistiaren Aldeko Batzordeetako 12 kide atxilotu zituzten 2001eko azaroaren leian. Olano ez zuten atxilotu Ipar Euskal Herrian baitzegoen. Frantziako Poliziak, abenduaren 3an atxilotu zuen Baionan. Harrezkeroztik Frantziako kartzela ezberdinetan egon da preso Olano.

Espainiako Armadako soldaduak Goierriin

Azaroaren lehenengo astean, Espainiako armadako paraxutistak Goierriko herrietan aritu ziren beraien maniobrak egiten. Helikopteroak ere noiznahi ikus zitezkeen Goierriko zeruan. Maniobra hauen egitekoaz herrietako agintariak ohartarazi ez zituztela eta, ezinegon sortu zen Goierriin udal ordezkarien eta herritarren artean.

Lan istripua Ampon

Azaroaren 12an Idiazabalgo Ampo kooperatiban izandako lan istripuan, 33 urteko A.S.A. larri zauritu zen. Likido erre-tzaile bat erori zitzaion gainera eta gorputzaren %80 erre zitzaion.

Faver Lazkao greban

Faver Lazkaoko langileak greban zeuden aldizkaria idazteko garaian. Soldata igoera enpresarekin adostu bazuten ere, grebaren arrazoia zera da: "langileok, istripuek eragindako bajak, lehenengo egunetik, %85an osatzea planteatzen digulako enpresari". Enpresako zuzendaritza planteamenduarekin ados egon arren, langile konkretu bati neurri hori ez aplikatzea erabaki omen zuen. Faver Lazkaoko langileek diskriminazioa eta langileak zatitzeko ahalegina salatzen dute.



Idiazabalgo Aranbururen gaztandegia ezagutzera joan ziren teruelarrak.

Teruelgo Sierra de Gudarrekoak Goierri ezagutzuz

Azaroaren 11tik 13ra, Teruelgo Sierra de Gúdar eskualdean turismo arloan lanean dabiltzan 30 laguneko talde bat Goierriin izan zen. Aragoiko go-bernuko turismo arduradunak ere bertan izan ziren. Esate baterako, Benito Ros, Aragoiko Turismo Orokorreko Zuzendaria; Angel Gracia, Teruelgo lehendakariordea; Francisco Javier Bagueda, Sierra de Gúdarreko presidentea; eta Manolo Gorritz, elkarte pribatueta-ko presidentea. Goierri eskualdean turismo arloa bultzatzeko elkarte publiko eta pribatuak osatuta duten Goiturren funtzionatzeko era gertutik ikusi nahi izan zuten teruelarrekin, Goierri ezagutzearekin batera. Duela 6 urte hasi zen bi eskualde- en arteko lehenengo harremana, Europako Adapt programari esker.



Zabor bilketarako ibilgailu berriak

Azaroaren 7an, Sasieta Mankomunitateak, zabor bilketarako ibilgailu berrien aurkezpena egin zuen Beasainen. 2,5 milioi euroko aurrekontua izan du ibilgailuen eta zabor ontzien berritze honek. Fomento de Construcciones y Contrata, S.A. eta Sukia Eraikuntzak, S.A. enpresen artean osatutako elkarteak izango du Goierriin zaborra biltzearen ardura. Lehenengo fase batean edukinontziak aldatzen joan dira, pixkanaka-pixkanaka. Horrekin batera, ibilgailuak ere aldatu dituzte, edukinontzi gehienak "alboko karga" deritzan motakoak baitira. Ondorioz, edukinontziak langile bakar batek eramango duen kamioi errobotizatu baten bidez hustuko dira, edukinontziaren alboan, paraleloan kamioia jarri eta albo batetik (eskuinetik) edukiontzia automatikoki hustuz.



Odolkiaren erregea, Orioko Kepa Loidi

Azaroaren 8an Beasaingo Loizazko San Martin plazan jokatu zen odolki txapelketan, Orioko Kepa Loidi izan zen irabazlea. Aurretik ere sari honen jabe izana zen oriotarra.

25 odolkigilek hartu zuten parte lehiaketan. Finalerako 7 sailkatu ziren, gehienak, Goierrikan kanpokoak: Orioko 2, Zarauzko 1, Arrasateko 1, Beasaingo 1 eta Ormaiztegiako 2. 24 lagunek osatutako epaimahaiak, beraz, punturik gehien Orioko Kepa Loidiri eman zizkion. Hurrengo bi sariak Goierrikan bertan gelditu ziren: bigarren saria Beasaingo Olano harategiarentzat izan zen eta hirugarrena, Ormaiztegiako Iñaki Camposentzat.

Loidik sari banaketa garairako etortzerik izan ez zuenez, Karlos Argiñanoren semeak, Enekok, jaso zuen, bere bizilekutik gertukoa zelako. Foru Aldundiko Nekazari zuzendariak, Jesus Argiñarena legorretarrak eman zion saria. Otsailaren 5eko Beasaingo Kofradiaren eguneko bazkarirako odolkiak prestatu beharko ditu oriotarrak.

Herritarren kontzientzia gehitu eta dirua biltzea helburu Rwandarekiko elkartasun ekitaldiak Lazkaon

Gabonen atarian 'Hirugarren mundua ezagutzen. Beste mundu bat posible da' lemapean hainbat ekintza antolatzen ditu Lazkaoko Rwanda Taldeak. Aurtten, abenduaren 12tik 20ra bitartean izango dira.

Ekintzaon helburua, lazkaotarren artean Hirugarren Mundua deritzaion hori hobeki ezagutzen laguntzea eta bertako arazo-en berri ematea da, "gu bizi garen gizarte honetan gai hauen inguruko kontzientzia landu eta gure barnean hainbat kezka eta galdera sortzea".

Hirugarren Munduan kokatutako proiektu baterako diru iturriak biltzea ere bada beste helburu bat. Hain zuzen ere Rwanda herrialdeko Gihara herrixkan kokatua dagoen 'Eskolatu gabeko haurrentzat ikas-txokoa' egitasmoa aurrera eramateko diru iturriak biltzea.

'Eskolatu gabeko haurrentzat ikas-txokoa' 2000. urtean jarri zen martxan, Leonardo Esnaola lazkaotar misiolaria bizi den lekuan. "Giharako herrian zehar zereginik gabe eta noraezean zebiltzan hainbat haur eta gaztetxori irtenbide bat eman nahian sortu zen. Eskolara joaten ez ziren neska-mutikoak, arrazoi sozio-ekonomiko-kulturalengatik eskolatik kanporatuak eta gerora hirietako kale neska-mutiko bihurtzeko aukera bakarra zutenei beste irtenbide bat eman nahian sortu zen asmo hau". Bertan baztertutako neska-mutikoak bildu eta gutxiengo hezkuntza



Gabonetako ekintzak

● **Argazki erakusketa.** Gorka Salmeron Murgiondo argazkilariaren 'Rwanda-1992' argazki erakusketa abenduaren 12tik abenduaren 20ra bitartean, Kultur etxeko erakusketa aretoan. Erakusketa honetan Giharako eskola eta ikas-txokoa irudikatuz txoko bat eratuko da. Argazki eta beste tresna batzuren bidez bertako eskolaumeen egoera azalduko da.

● **Hirugarren munduko artesautza eta bidezko merkataritza-ko produktuen salmenta** egingo da erakusketan bertan, egun eta leku berean. "Hirugarren munduaren egoerarekin zerikusi zuzena du herrialdeen arteko harreman komertzial eta ekonomikoak. Honen inguruan harreman justuago eta duinago batzuren aldeko "bidezko merkataritza" mugimendua zabaldu eta indartzeko asmoz eratzten da salmenta hau".

● **Txikienentzat ipuin kontaketa,** abenduaren 12an, arratsaldeko 5,30etan, Udaletxeko Pleno Aretoan.

● **Hitzaldia.** Gaia: Globalizazioa-Nekazaritza-Elikadura. Hizlaria: Paul Nicholson. EHNE sindikatuko eta Via Canpesinako kidea. Abenduaren 19an, 19:00etan, Kultur etxeko areto nagusian.

● **Antzerki emanaldia.** 'Usoa. Hegan etorritako kukua', San Benito ikastolako antzerki taldearen eskutik, abenduaren 19an, arratsaldeko 5,30etan, San Benito Ikastolako Areto Nagusian.

bat ematen zaie. Alfabetatu, gutxieneko ikasketak, eta abar. Neska-mutiko hauei bide honetara bideratzeko eguneko otordu bat ematen zaie. Egitasmo hau bere fruituak ematen hasi da: 2003 urtean, hiru ikasturte egin ondoren, 50

neska mutiko atera dira ikas-txoko honetatik. Gaur egun 120 neska-mutikorekin ari dira lanean eta guzti hau aurrera ateratzeko diru iturriak bilatu nahi ditu Lazkao Rwanda taldeak.

Zuzenketa

Aurreko alean Goierriko euskara datuen inguruko taulan, datuen transkripzioan izandako akatsak zuzentzera gatoz. Azpiko koadroan dituzue datu zuzenak.

2001eko euskararen ezagutza Goierrin

2 urtez goitiko biztanleria, euskara-maila orokorraren arabera. Biztanle-kopuruaren arabera ordenatutako taula


	Euskaldunak		Ia-euskaldunak		Erdaldunak		Biztanleak guztira
		%		%		%	
BEASAIN	6.865	58,27	1.792	15,21	3.124	26,52	11.781
ORDIZIA	5.192	59,71	1.646	18,93	1.858	21,37	8.696
LAZKAO	3.016	63,03	681	14,23	1.088	22,74	4.785
IDIAZABAL	1.786	87,89	126	6,20	120	5,91	2.032
ATAUN	1.430	94,64	46	3,04	35	2,32	1.511
ZALDIBIA	1.276	87,16	109	7,45	79	5,40	1.464
LEGORRETA	992	75,09	85	6,43	244	18,47	1.321
ZEGAMA	1.136	89,31	85	6,68	51	4,01	1.272
SEGURA	1.076	89,44	80	6,65	47	3,91	1.203
ORMAIZTEGI	911	80,34	107	6,65	116	10,23	1.134
OLABERRIA	463	52,26	152	17,16	271	30,59	886
ITSASONDO	441	78,61	64	11,41	56	9,98	561
EZKIO-ITASO	480	90,91	34	6,44	14	2,65	528
GABIRIA	389	94,65	20	4,87	2	0,49	411
ZERAIN	234	93,98	12	4,82	3	1,20	249
ARAMA	143	89,38	11	6,88	6	3,75	160
MUTILOA	140	91,50	10	6,54	3	1,96	153
GAINTZA	125	96,15	4	3,08	1	0,77	130
ALTZAGA	91	91,92	7	7,07	1	1,01	99
Guztira	26.186	68,24	5.071	13,21	7.119	18,55	38.376

Barandiaran Fundazioak

'Vida y obra de D. Jose Migel Barandiaran' liburua aurkeztu du


Atzo, azaroak 20, Jose Migel Barandiaran Fundazioak 'Vida y Obra de D. José Miguel de Barandiarán' liburua aurkeztu zuen Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean. Ander Manterola eta Gurutzi Arregik egin dute liburuan, Barandiaranen bizitzako gertakariak, haren ikerketa, azterlan, argitalpen eta jardueren zientifikoak biltzen dira.

Argitalpen honen muina Barandiaranen lan idatziaren bibliografia-katalogoa da, eta beti ere jatorrizko argitalpenetara joz burutu da. Bere monografia, fitxa, artikulua, hitzaldi, indusketa memoria, aipamen eta hitzaurreak 575 fitxetan zenbatuak daude.



Joseba Beloki

Lazkao txirrindulariak talde berriarekin fitxatu du. Stayer taldearekin negoziaketetan aritu ondoren, azkenean, Frantziako Brioches La Boulangere taldearekin sinatu du datozen bi urteetarako. Gorka anaia bere ondoan izango du. Joseba Belokik aitortu duenez, kirol alorrari baino gehiago arlo ekonomikoari eman dio garrantzia handiagoa.



Ikaspilota

Eskolumeen artean pilotarako zaletasuna bultzatzeko helburuarekin, Ikaspilota saioak izan ziren azaroaren 6an Beasainen eta Ormaiztegin. Eskualdeko haurrak bildu ziren bertan.

'Karratu' 7. Behobia-Donostian

Azaroaren 9an jokatu zen Behobia-Donostia lasterketa herrikoian, Jose Jabier Cuadrado 'Karratu' ordiziarra 7. izan zen. Bera izan zen lehenengo goierritarra.



Goierriko ezti txapelketa, azaroaren 22an Ordizian

Bihar, azaroak 22, arratsaldeko 5etan, eztiaren eskualdeko VI. lehiaketa jokatu da. Gipuzkoako Erlezainen Elkarteak antolatuta eta Ordiziako udalak babestuta, Ordiziako Plaza Nagusian egingo da, eta erleen produktu apartekoari buruz, zein beste produktu eta gaiekin loturiko erlezantza bueltako informazioaz gain, aurtun jasotako eztiaren dastaketa aukera izango da.

Lehiaketan parte hartzea pentsatu duten erlezainek, kilo erdiko bina potetan ekarri beharko du bakoitzak norbere ezti. Epaimahaiak aukeratutako hiru ezti hoberenak. Saria jasotzeaz gain lurraldeko txapelketara pasako dira.

Honako irizpide hauei begiratuko die epamahaikoek: itxura (txukun, gardentasuna, ondo filtratua...), hezetasuna, usaina eta azkenean, aho-zaporea.

Ardoaren azokaren barruan izango da eztiaren azoka. Informazio gehiago Ordiziako kronikan duzue.

10. urteurrena



PALACIO ORIENTAL

JATETXE TXINARRA

東園酒家

- ✕ Kalitate eta zerbitzu hoberena
- ✕ Etxerako zerbitzua Goierri osoan

☎ 943 725 243 Labeaga, 33 H URRETUXU ☎ 943 534 868 Labeaga, 43

MOTAYANG

- ✕ Arropa
- ✕ Oinetakoak
- ✕ Konplementuak


Kalitatea eta prezio onak

OSTEOPATIA

Jose Gisasola Dr. R.P.S. 213/97

- LUNBAGO, ZIATIKA, HERNIA DISKAL
- ZERBIKALGIA, ZEFALIA, MIGRAINA, ARTROSIS.
- TENDINITIS, KIROL LESIOAK.

Eskatu ordua: ☎ 629 45 20 53
Andra Mari, 13 behea ez. - BEASAIN



ondoeta

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51

Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

ALTZAIKUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

Zumarra, garai zaharrak hobeak izan zirenekoa (beste behin)

JAKIN BEHARREKOAK

✓ **'Hondakin arriskutsu eta industrialak'** ikastaroa antolatu du Ekologistak Martxan taldeak, Bilboko Ekoetxean. Data: urriaren 28tik abenduaren 2a bitartean. Argibide gehiagorako: 944790119; embizkaia@ekologistakmartxan.org.

✓ **Ibilbide laburreko hegazti migratzaileak**, hala nola araba zozoak, txanxangorriak edo buztangorri ilunak, Europako mendebaldera eta afrikako iparraldera jotzen dute negupasa. Aldiz **ibilbide luzeko migratzaileak**, hala nola enara arrunta, kukua, buztangorri argia edo amiamoko zuria... Afrikako erdialde eta hegoaldera jotzen dute negupasa. Salbuespenak salbuespen, harrigarria da hegazti hauen orientazio bikaina, batik bat ibilbide luzeko migratzaileetan, urtero leku berberera itzultzen baitira. Hala ere, badira negutokiak aldatzen dituztenak ere.

✓ Urtean zehar ibaiaren behealdean egon diren **amuarrainek azarotik abendura bitartean** ibaian gora egingo dute, hondo harritsua duten leku fresko eta garbien bila. Bertan emeek isats-kolpezu-irreki eta arrautzak errungo dituzte; arrak hazia isuriz ernalduko ditu. Ondoren korronteak amuarrairain helduak beren jatorrizko lekuetara eramango dituzte.

Zumarrak berebiziko garrantzia du gure kulturari, horra hor hainbat abizen edota toponimo honen lekuko (Zumarraga bera adibidez, "zumar askoko lekua"). Bere egurra oso estimatua izan da altzarigintzan, tarimak eta hezetasuna jasan behar duten piezak egiteko, untzigintzan... Hostoak oraindik ere zenbait tokitan erabiltzen dira ganaduari jaten emateko eta garai batean hosto samurrenak barazki gisa ere jaten ziren. Azalak berriz, gaitasun astringenteak ditu. Gainera oso erabilia izan da ornamental bezala. Benetako altxorra! Baina gaztainondoarekin gertatzen denaren moduan zumarrek ere ez dute garairik gozoena bizi gure artean.

Beste behin gaixotasun bat da egoera honen erantzulea: grafiosia edo zumarraren gaixotasun holandarra (lehen aldiz 1921ean bertan deskribatu zen). Hasiera batean eritasun honen eragilea Ophyostoma ulmi onddoa bazen ere, egun Ophyostoma novo-ulmi bariatateak ordezkatu du (lehenengoa baino are oldarkorragoa). Azken laurogei urteotan milioika zumarren heriotzaren arduraduna izan da (populazio osoaren % 90-95 artean!), bereziki 50. eta 60. hamarkadetan. Erresuma Batuan adibidez, hogeitaz urteren buruan 30 milioi zumar hil ziren. Gurera beranduago iritsi zen, 1981an Gipuzkoara, baina ondorioak nabariak izan dira: Donostian bertan adibidez, plaza eta parkeetan zeuden zumar gehienak kutsatu eta galdu ziren.

Eragilea lehen aipaturiko onddoa bada ere ezinbesteko bidai lagun bat du: zumarraren egurraren kakalardoak. Egia esan, onddoa da kakalardoaren bidai laguna, bere gainean garraiatu ohi baita. Onddoak eta kakalardoak bere kasa bizirauteko gai badira ere, gehienetan elkarrekin agertzen dira bientzako onurak dakartzan elkarbizitzan: batetik kakalardoak zumarraren enborra zulatzen du galeriak irekiz eta onddoak galeria hauek erabiltzen ditu enborra kutsatzeko; bestetik, onddoak enborra usteldu egiten du eta kakalardoari garatzeko leku

aproposa eskaintzen dio. Hala ere, elkarlan hau bientzako kaltegarria ere izan daiteke: sail bateko zumar guztiak kutsatu eta hiltzera iritsi baitaitezke, euren kalterako (biek ezinbestean zumarra behar dute bizirauteko).

Gaitza duten zumarretan lehenengo hostoak zimeldu eta erortzen dira, ondoren adarrak eta azkenean zuhaitza bere osotasunean zimeltzen da. Azala altxatu ezker kakalardoak zulatutako galeriak agerian geratuko dira. Udaberrian edo uda hasieran kutsatutako zuhaitzak epe laburrera hiltzen dira; uda amaieran kutsatutakoak berriz kalte gutxiago jasaten dute, nahiz eta hurrengo erasoak ahulduak geratzen diren.

Europako zumar espezieek orokorrean ez dute gaixotasun honekiko erresistentziarik garatu, nahiz eta badiren modu naturalean gaitzari aurre egiteko gai diren banako edo populazioak. Ikerketa gehienak zumar erresistente hauetatik gaixotutako populazioak ordezkatu dituzten aleak lortzera bideratu dira. Bestalde, zumar siberiarra eta txinatarra erresistenteak izanik zumar europarrarekin hibridatu izan dira bariatate berriak lortzeko. Zuzenean kakalardoari edo onddoari aurre egingo dioten pestizida eta fungizidak ere ikertu dira, baina emaitzak ez dira nahi bezain onak izan. Ikerketak aurrera badoaz ere, garbi dagoena da zumarrak aurrera egingo badu egoerara moldatzeko bere gaitasunari esker izango dela.

Zumarrak desagertuz doaz gure baso, parke eta plazetatik baina gu erraz ohitu gara kanpoko espezieen gerizpean paseatzera; gaztaintek ez dute garai batekoen zaporerik baina gure mihia ez da gai galdutako zaporeez gozatzeko... Gure ondare natural eta kulturalaren puzzlea osatzen duten piezak galduz bagoaz ere, ezjakintasuna (edo utzikeria akaso?) bide dela askotan ez gara atzera begiratu eta gogoeta egiteko gai: izango garena, izan ginenaren kimutik sortuko da.

Joseba Garmendia

Landar Lan taldeak egindako orrialdea

Taldean parte hartu edo gairen bat aportatu nahi baduzu: ☎ 943 16 12 44

Goierriko Landa Garapen jardunaldiak

Ataunen, azaroaren 26an

Goimen Elkartek Goierriko Landa Garapen jardunaldiak antolatu ditu azaroaren 26an, Ataungo udaletxean. Goierriko Landa Garapenaren helburu eta edukiak azalduko ditu Goimenek bertan.

"Programa honek Goierriko eragile diren talde zein arduradunen arteko sinergia bilatzen du eta atzetik, helburu modura, guztiok eskualde ikuspegi beretik lan egitearena dago".

Goierriko Landa Garapen jardunaldiak, bere lehen ekitaldian, Euskal Autonomi Erki-dego guztian eskualdeka egingo diren foroetako emango dio hasiera, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailburua Gonzalo Saez de Samaniego eta Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapenerako Diputatua Nuri Lopez de Gereñuren eskutik, Mendikoi, Eudel eta Goimenen partaidetzarekin.

Ekitaldia, azaroaren 26an Ataungo Udaletxean izango da eta bertan Goierriko Landa Garapen Programaren laburpena emango du ezagutzera Goimenek. Laburpenak eskualdean burutu den lanaren mamia, modu arinago eta gertuagoan aurkezten du.



Programa honek Goierriko eragile diren talde zein arduradunen arteko sinergia bilatzen du eta atzetik, helburu modura, guztiok eskualde ikuspegi beretik lan egitearena dago. "Dena den, egun, oraindik, aurreko lan bat egiteke dagoela agerian jarri da. Izan ere, urtebetez elkar lanetik lortutako Programan, markatu ziren ekimenen atzetik, egon dauden zergatiak, maila handi batean barnerratzeko baitaude", argitu dute Goimeneko teknikariek.

Gauzak horrela, Goierriko Landa Garapen Programa martxan jartzeko garai honetan, eskualdeko esparru desberdinetan ari diren eragileekin bat (alkate, zinegotzi, udal teknikari, eta entitateekin), topagunea bultzatu nahi du Goimenek jardunaldi hauen bitartez.

Lau helburu nagusi dituzte jardunaldiok: eragile-zein herritarrek garapen ikuspegi amankomun batetik abiatzea; ekintza esparru desberdinak

elkar harremanetan jarri eta koordinazioa sustatzea; Administrazioetako egitasmo eta programa desberdinak ezagutzera ematea; eta iniziatiba berriak ahalbidetzea, elkarlanerako egiturak bultzatuz.

Hasiera batean, hitzaldiak eskualdeko udal ordezkari eta eragileei bideratuak izango dira. "Bertan, Landa Garapen Programaren zentzua, azken helburuak, herri eta esparru desberdinetan txertatzearen erronka, konpetentziak eta diru baliabideetara egokitzearen zailtasunak adierazi nahi dira. Zer egin landa inguruneetan? nola landu? nola gauzatu?; zein balio eta zer nolako babesa duen aztertuko da", gaineratu dute.

Horretaz gain, urtero Goimen Elkarte bertatik ematen diren Landa Garapen Sarien banaketa egin nahi da bertan, hauen saritzearekin bat, atzetik jasotzen diren egitasmo zein mezuak kaleratuaz.

Egitaraua

9:15ean: Harrera.

9:30ean: Landa Garapen Foroaren aurkezpen ofiziala. Agintarien mahaia: Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailburua, Landa Ingurunearen Garapenerako Diputatua.

10:00etan: 'Landa Garapen ekintzak gauzatzeko pausak'. Hizlaria: Juan Carlos Zuloaga (Landa Garapen Departamentuko zuzendaria).

11:30ean: 'Goierriko Landa Garapen Programaren aurkezpena'. Hizlaria: Jose Manuel Zubizarreta (Goimen Elkarteko arduraduna).

12:15ean: 'Landa Garapen Programaren egungo egoera'. Hizlaria: Xabier Arruti (Mendikoiko teknikaria).

13:00etan: Goierriko IV. Landa Garapen sariak.

14:00etan: Bazkaria.

16:00etan: 'Landa garapena eta gizarte zerbitzuak'. Hurbiltzen programaren aukerak. Hizlaria: Jon Iribar (Gizartekintzako tekniko arduraduna).

17:15etan: 'Landa Garapena eta Agenda 21'. Herri esperientzia eta ingurugiroa. Hizlaria: Carlos Aseginola (Oiartzungo udaleko teknikaria).



Urdaneta, 41
Faxa: 943 88 95 76
ORDIZIA

- ✖ Tximini eta egurrezko ekonomikak
- ✖ Berogailuak
- ✖ Iturgintza
- ✖ Zeramika erakusketa
- ✖ Bainuko altzariak
- ✖ Erreforma osoak



Arama: txikitasunean, handi

200 biztanletik beherako lau herri ditugu Goierriin: Altzaga, Gaintza, Mutiloa eta Arama. Horrelako herri txikien etorkizuna ziurtatzeko egiten ari direnaz interesaturik, Aramatik hasi dugu erronda, parke berria egin dutenaren aitzakiapean.

160 biztanle ditu Aramak. Mari Jose Olazabal da bertako alkatea. 29 eta 34 urte bitarteko gazteek osatzen dute Udala. Arama eta aramatartasuna bultzatzeko ilusioak batten ditu bost gazteak. Egin dutena eta egiteko asmoa dutena laburbildu digute Mari Jose Olazabal alkateak eta Jasone Aranburu Kultura zinegotziak.

Etxebizitzak

Lurjabeekin bi urtez negoziaketetan aritu ondoren, akordiora iritsi eta Udalak etxebizitzak egiteko lurra erosi du. 10 etxebizitza egiteko lekua egongo da bertan. "Moduko" etxebizitzak egin nahi ditu Udalak, herriko gazteak he-



Mari Jose Olazabal eta Jasone Aranburu: "Arama oso leku egokia da bizitzeko. Oso toki onean dago. Bizitza egon liteke, baina hilda ez dugu sentitzen. Gauza gehiago egin litezkeela? Jendeari asko kostatzen zaiola dinamika batean sartzea? Baita ere". Azpian, parke berria.

rrian gelditzea baita helburua. "Jende gazte asko zegoen Araman gelditzeko gogoarekin baina azkena egindako etxebizitzak pribatuak izan ziren eta prezio altu samarrekoeak eta gazteoi ezinezkoa egin zitzaigun bertan sartzea. Aurreko legegintzaldian inkesta egin zen jendeak ba ote zeukan interesik Araman bizitzeko. Baiezkoa atara zen", argitu du alkateak.

Eraikuntza pribatuaren ekimenez, beste 14 etxebizitza ere egiten hasiak dira.

Aramarren zerbitzuak gehitzen eta hobetzen joatearren, ur hornikuntza sarea behin betikoz bukatzeko asmoa dago. Hiri gasa herriraino ere ekarriko da, eta epe luzeagora hainbat baserrietara ere bai.

Parkea

Azkeneko obra handiena edo nagusiena, pilotalekuaren inguruan, Udalak erositako lur eremuan, aisialdirako berde gunea egin da. "Kultur etxe ondoan zegoen parkea txikia

zen, ura ez zen ondo xurgatzen. Putzuak egunetan egoten dira".

Kutxak finantzatutako haurrentzako jolas parkea erdian dela, bankuak, bidexkak, zelaiak, mahai eta aulkiak eta iturriak osatzen dute parkea. Udala eta herritarrek gustura daude emaitzarekin. Bidetxurra txukundu eta argiztapen egokiarekin, herriari itzulia egiteko aukera ere badago.

Buruan darabilkiten beste ideia bat da rokodromoren bat egitea, pilotalekuaren hormaren batean, beti ere, aisirako gunea osatzearren.



MAZDA

Bikar, S. A.



☎ 943 889 296 Faxa: 943 887 952

N-1 errepidea, 419 Kma **BEASAIN**

"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"



K. Nagusia 35 Elosegi, 14 Sta. Maria, 19
☎ 943 88 77 58 ☎ 943 88 72 79 ☎ 943 16 00 44
BEASAIN LAZKAO ORDIZIA



MUJICA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA

Espaloia bidegurutzerraino

Jende askoren pasealekua da Arama. Baina badu puntu beltz bat Udalak lehenbailehen konpondu nahi duena: "espaloia bide nagusiko bidegurutzerraino luzatu nahi dugu, jende asko ibiltzen baita bertan eta arriskutsua da go oso, bi ibilgailu gurutzatzen direnean. Foru Aldundiarekin harremanak izan ditugu baina momentuan ez dugu dirulaguntzarik lortu. Beste saiakera bat egiteko asmoa ere badakagu. Egunen batean ezbeharren bat gertatuko da eta".

Zailtasunak

Herri txikiek dituzten zailtasun zeintzuk ote dituzten galdetuta, zera erantzun digu Mari Jose Olazabalek: "Gauzak egiterako orduan, udalek, herria gidatu behar dugunok, denbora gutxi dugu. Proiektuak aurrera eramateko garaian, denbora asko pasatzen da, tramite asko egin behar dira eta luze jotzen dute. Jendeari kosta egiten zaio parte hartzea, zeharka ere bai. Bestetik, herri txikietan dena oso pertsonalizatua dago. Txarrerako eta onerako, herri txikia izanik, denak eza gutzen gara".

Haurren arteko

harremanak sortzen

Gazte jendea herrian bertan gelditzearen aldekoa izanda eta kanpotik ere bikote gazteak datozela ikusita, haurrak dira Aramaren eta aramartasunaren etorkizuna, Olazabal eta Aranbururen esanetan. Haurren eta gaztetxoaren arteko harremanak sortzeko eta sendotzeko, hainbat eta hainbat ekimen ari dira egiten Araman.

Horretarako, "Kultur Etxea aktibatu da. Liburutegia, ludoteka eta biltzeko lekua sortu dira". Ordenadoreak, jokoak... Haur txikienentzat txokotxo bat ere moldatzekotan dira. Pixkanaka ari dira helburuak lortzen. "Pixka bat lortu dugu haurrek ohitura bat izatea elkartzeko, jolasteko... toki fisikoa behintzat badute. Gauza aldatu da eta horren ondorioz, jendea hasita dago herrian gelditu eta haurrek elkarrekin jolasten. Hain haur gutxi eta harremanik ez izatea pena litzateke", zehaztu du alkateak.

Herri giroa mantentzeko udako udaleku irekiak ere antolatu dituzte Araman azkeneko bi udatan, beraien ar-



teko harremanak egiten joateko. Haur gehienek parte hartzen dute. Aurten bi talde sortu dituzte urte tarte oso ezberdineko haurrak baitzeuden. Bi begirale aritu dira horretan. "Aramartasunak lortzen saiatzen ari gara eta hori behetik sortzen ez bada, oso zaila da. Haurren talde hori oso garrantzitsua da. Haurren aitzakian hasita gara gurasoak gehixeago elkartzen".

Helduak eta gazteak ere kontuan

KZgunea sortzekotan dira Araman, adin ezberdinetako aramarrak ordenadorearen eta internetaren mundua bel-

durrik gabe sartzeko.

Urtarril aldera sukaldaritza ikastaroa antolatuko dute. Herriko gazteentzat ere irteeraren bat antolatzeko asmoa badaukate.

Beste asmo bat ere badu Udalak: Kultur Elkartea bat sortu eta urtean, hiruzpalau kultur ekitaldi antolatzea.

Kultura eta ondarearekin lotuta, Ibaresko zubia berritzea gustuko izango luke Udalak, errota berarekin batera. "Errota zaindu beharrekoko ondare kulturala dela uste dugu".

Herriko beste talde bat elkartzeko saiakera ere ari da egiten Udala, baserritarrena alegia.

GUKlan

**Berogintza
Iturgintza
Gasa
Klimatizazioa**

Tel.: 943 161 277 Faxa: 943 160 933

Nafarroa Etorbidea, 27
BEASAIN

Tailerra: Okorro, 6 - ORDIZIA

VOLVO



ANZIZAR, S.A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a

943 88 17 00 Faxa.: 943 88 48 11

www.anzizar.com

BEASAIN

**iBAti ONDO
AROTEGIA**



Kamara digitala opari!
Multisac koltxoia erositak eraman ezazu duen Kodak kamara digitala.

FLASH KOLTXOIA	
135/180	427 euro
135/190	415 euro
150/190	464 euro



Sofak,
altzari mazizoak
haritzekoak,
gerizekoak,
gastainondoak

multisac

943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47

Poltsikoko telefonoa: 639 631 640

Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

Beasaingo Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia prest "Euskararen normalizaziorako lan tresna osatu dugu"

Prest bakarrik ez, abian da dagoeneko Beasaingo Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia. Azaroaren 13an herriko eragile ezberdinen aurrean aurkeztu zen plana, herriko eragileen iritzia eta ekarpenak jasota osatuta den plana.

Apirilaren 7an eratu zen Euskararen Aholku Batzordea eta berak egingo du planaren jarraipena. Batzorde horren barruan, irakaskuntzako lan taldea ere eratu berria da. Plana ahalik eta arrakastarik handienarekin aurrera eramateko, herritarren parte hartzea behar-beharrezkoa dela azpimarratu zen behin eta berriaz aurkezpenean.

Patxi Plazaolak, Beasaingo alkateak, aurkezpenean esan zuenez, Beasainen euskararen normalizazioaren bidean jarraitzeko plan estrate-



Azaroaren 13an egin zuten aurkezpenean herritarren aurrean, Patxi Plazaola alkateak eta Aitor Aldasoro Euskara zinegotziak, Jaurilaritzako eta Foru Aldundiko ordezkariekin batera.

gikoa da Euskararen Biziberritzeko Plana, 2003-2005 epe bitartekoa. Plan irekia da, beasaindar guztientzat egindako plana, herriko eragile ezberdinen iritziekin eta ekarpenekin osatua.

Aitor Aldasoro Euskara zinegotziak, euskararen erabileraren datu ahulen berri eman zuen. Beasainen euskaldunak %58 badira ere,

erabileraren datua %28koa da. Beraz, hizkuntza politikarako neurriak hartzeaz gain, bultzatzeko konpromisoa hartu behar dela adierazi zuen.

Dena den, beste gauza bat argi utzi nahi izan zuten aurkezpenean: Euskararen Biziberritzeko Plan Nagusi honek, asmo eta helburu berriak bai, baina esparru bakoitzak

orain arte bere arloan egin duena jaso eta bere jarraipena izango dela. Ekintza isolatuak plan bakarrean, norabide berean, bildu dira, beti ere, euskaraz bizi nahi duen herritarrari horretarako aukera ziurtatzeko.

Paperetik errealitatera

Paperean idatzitako plana gauzatzen hasia da dagoeneko, beti ere hiru helburu estrategikoak oinarri hartuta. Euskara ondorengoetaratzea, euskararen erabilera bultzatzea eta euskararen kalitatea eta elikadura dira hiru helburu horiek. Ondoko koadroan duzue xehetasun gehiago. 2003. urteko kudeaketa planak jasotzen dituen eta praktikan jarri diren hainbat adibide dituzue jarraian.

Euskararen ondorengoetaratzea

Irakaskuntza, euskalduntze-alfabetatzea eta familia dira helburu estrategiko honen oi-



ZEGAMA

OKINDEGIA

*Eskuz egindako
ogi naturala*

☎ 943 80 10 66

Olaberria Kalea, 6 **ZEGAMA**

SALMENTA PUNTUAK:

Beasain: Charter, Oskarbi, Osiña, Orlegi eta Orlegi Natxo. **Ordizia:** Garmendia, Sabino, Muño, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Ruffi, Lasa, Viaña eta Osaki. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Ahizpak. **Ormaiztegui:** Iñaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda denda. **Legazpi:** Jabi harategia.

**OTEÑE
ERRETEGIA**

Bazkari, afari eta edozein ospakizun ingurune paregabean

Larraitx bidea

GAINTZA

☎ 943 88 98 48



LAZKAO GERRIKO TABERNA ERRENTAN

eman nahi da,
oraingo maizterren
erretiroarengatik.

Interesatuok deitu
943 886 500
telefono zenbakira,
dendako ordutegian.

DERRIGORREZKOA DA
EUSKALDUNA IZATEA.

narri, belaunaldien arteko lotura ziurtatzea baita helburua.

Familiari dagokionean, ikastetxeekin batera antolatuta, gurasoentzako euskara klaseen eskaintza egin da. 50 bat guraso ari dira euskara ikasten.

Irakaskuntza esparruan, herriko gazteenen euskara indartzeko beste hainbat ekintza ere ari dira burutzen: udalekuak, udaleku irekiak, euskara zine aretoetara programa... Herriko bi ikastetxek ere DBHko ikasleak udal eskalgira bideratu dituzte ahozkoa indartzeko.

Euskaldun berriei begira, Mintzalagun proiektua ere helburu hau indartzera dator. Urritik maiatza bitartean, euskaraz ikasten ari denari kalean modu naturalean hitz egiteko, euskaldun zaharrak eta euskaldun berriak elkartuko dira. 18 euskaldun berri eta 9 euskaldun zahar ari dira lan horretan.

Euskararen erabilera

Hizkuntza baten geroa ez du jakiteak ziurtatzen, erabilera behar-beharrezkoa da. Ikastetxetik kanpo egunerokotasunean naturaltasunez herrian euskaraz bizitzen jarraitzeko helburuarekin, beste hainbat

Helburu estrategikoak

● **Euskara ondorengoetaratzea:** Euskararen geroratzea, familieren, eskolaren eta helduen euskalduntzearen-alfabetatzearen egitekoa da, eta esparru horiek eratuko dituzte hizkuntza eredu hobetzeko eta euskaraz bizitzen laguntzeko egitasmoak.

● **Euskararen erabilera:** Erabiliz zorrozten da hizkuntza. Udalerriko administrazio, enpresa, merkatar, kirol eta aisia erakunde eta abarrek plangintzak eratuko dituzte herritarrari zerbitzua euskaraz eskaintzeko eta euskara lan hizkuntza bihurtzeko.

● **Euskararen kalitatea eta elikadura:** Euskaldunari, ezagupenak sendotzeko eta bere harreman-sare euskalduna zabaltzeko bidea irekiko zaio.

bitarteko ari da jartzen Udala. Horretarako, administrazioa bera, informazioa eta komunikazioaren teknologia berriak, enpresa eta merkataritza eta aisian euskararen erabilera areagotu nahi da.

Aisiari dagokionean, kirolaren munduan haur eta gazte asko mugitzen denez, lehen-tasunetarikoa arloa da Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiarentzat kirol mundua euskalduntzea. Hori lortzeko, hitzarmena sinatu da Beasain Kirol Elkartearekin, entren-tzaileei eta teknikariei trebakuntza eskainiz hauek ere euskaldundu daitezen eta jendaurreko agerpenetan euskararen erabilera gehitzeko konpromisoak har ditzan. BKLrekin hitzarmena sina-

tzekotan dira datorren denboraldian.

Gazteen aisiariarekin lotuta, Udalak, arlo horretan hainbat ekintza aurrera eramane ahal izateko begiraleen lan-poltsa osatzeko, begirale ikastaroa antolatu da Urtxintxa begirale eskolarekin.

Bi ludoteka ere badaude, 16 urte bitartekoentzat, Udalletxean eta Ezkiaga auzoan. 160 bat gaztetxo ari dira bertan.

Kuadrillategi programa ere gazteen euskararen erabilera areagotzeko tresna da. 3 urte daramatza programa honek, gazteak, lagun giroan, euskaraz hitz egiteko ohitura bermatu dadin saiatzan. 14 urte inguruko 30 bat lagunek-

parte hartzen dute Kuadrillategin.

Enpresa eta merkataritza arloan aholkularitza eskaintzen du Udalak, euskara planak egiteko. 15 bat merkataritza euskaraz trebatzen ere ari dira.

Teknologia berrietan ere ahalegin berezia ari da egiten Udala, web orrietan eta informatika programetan euskararen erabilera bultzatzeko.

Udala bera ere, bere euskara plana aurrera eramaten ari da, euskarazko zerbitzua ziurtatzeko.

Euskararen kalitatea eta elikadura

Eskualdeko euskarazko hedabideak bultzatzea da Euskararen Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburuetariko bat, Goierrri telebista eta GOIERRI-TARRA aldizkaria diruz laguntzea esaterako.

Komunikabideez gain, Plan honek, euskarazko kultura kontsumitzera bultzatu nahi ditu herritarrak. Irakurzaletasuna bultzatu eta euskaraz idaztea ere bai. Horren adibide dira Udalak antolatzen dituen idazle berrientzat Igartza beka eta idazlan lehiaketa.

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

San Inazio, 14 ☎ 943 889 390 BEASAIN
Garagartza pl., 1 ☎ 943 805 327 ORDIZIA

Aseguru korreduria

SEGURUEN PROFESIONALAK

MUNDUATE, S.L.

Elosegi, 1- behea

Tfnoa.: 943 88 86 20

Tfno. mugikorra: 609 49 14 41

Faxa: 943 88 91 18

LAZKAO

INIAUSTI



KARROZERIA

N-1 errepidea, lurre auzoa
☎ 943 88 43 01 OLABERRIA

AMEB



Sagardotegia

Erretegi bezala zabalik

* Eguneroko menuak
* Asteburuko menu bereziak

* Karta zerbitzua
* Ospakizunak
* Plater konbinatuak

Zubierreka, 9 ☎ 943 16 25 23 **LAZKAO**

San Andres jaiak Ormaiztegin

Azaroak 22, larunbata: Egun elegantea eta haurren eguna:

12:00etan: Lagun taldeen bilkura eleganteen eguna ospatzeko.

17:00etatik aurrera Beasaingo Koxkola txaranga.

17:00etan: Txokolate jana guraso elkartearen laguntzaz antolatua, enparantzan.

17:30ean: 'Zirkus mirkus' antzerki ikuskizuna, haurren partaidetzarekin De Traka taldeak aurkeztua.

Jarraian: Mozorroturiko haurren desfilea eta sari banaketa. Partaide guztientzat sariak izango dira.

Azaroak 23, igandea:

8:30ean: Ormaiztegi-Legazpi-Ormaiztegi mendi ibilaldia, herriko enparantzatik abiatuta. Helmuga: Itxune



erretegi aurrean. Partaideei hamaiketako eskainiko zaie.

11:00etan: X. Artisau erakusketa herriko enparantzan, Lazkaoko talogileen partaidetzarekin.

12:00etan: Meza nagusia.

Jarraian: Udalak eskainitako hamaiketako Bardularrak elkartearen laguntzarekin herriko enparantzan.

12:30ean: Egun guztian zehar Koxkola txaranga.

17:30ean: Kiki eta Koko pailazoen 'Anai Alai' ikuskizuna herriko enparantzan.

18:30ean: Gaztaina jatea eta O.K.E mendi sailaren diapositiba emanaldia, enparantzan, Mendi astearren barnean.

Azaroak 28, ostirala:

18:00etan: Suzirien jartiketa, jaiei hasiera emanez, buhruhandiak eta Urretxuko Iratzarri dultzaineroak.

23:00etan: Trikiizio taldearekin dantzaldia herriko enparantzan.

Azaroak 29, larunbata: Lagun taldeen eguna. Mozorrotuen eguna:

Egun guztian zehar: Mozorroturiko lagun taldeek herriko kaleak alaituko dituzte 'Los Incansables' txarangarekin.

12:00etan: Haurren danborrada herriko kaleetan zehar, 'Los Incansables' txarangarekin.

17:00etan: Titiriteros de Binefarrak taldeak 'Azeriaren fabula' antzeztuko du, herriko enparantzan.

17:30ean: Ormaiztegi-Urnie-ta eskubaloia partidua.

18:00etan: Legazpiko Errondaila, herriko tabernetan.

19:30ean: Helduen mozorro-en dantza eta sari banaketa.



Garaje ETXE-AZPI S.L.

San Andres jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

CITROËN

☎ 943 88 10 61

ORMAIZTEGI

ARANTXA taberna

Bonoloto, primitiva eta kinielak

Pintxo eta ogitartekoak

San Andres, 13

☎ 943 88 28 22 **ORMAIZTEGI**

KEMEN

KIROLAK

Jai zoriontsuak denoi!

Zumalakarregi, 1

☎ 943 88 51 68

ORMAIZTEGI

ORMAIZTEGIKO JAIK 2003

Alkatearen agurra

Azaroa jaio zen
Lehen egunetan
Aparta benetan,
Ilargia etzanik
Teiatu gaineran,
Asmoa zuelako
Seguruenetan
Umorea pizteko
Nahiera onetan
Euskal Herriko txoko
Zineko honetan.

Pasatzu joan dira
Astun astegunak,
Seika dauzkagunak,
Ailegatu artean
Ditxazko egunak.
Iritsi dira festak:
Tragoxka, lagunak!
Zirt-zart bihur ditzala
Ardotxo bigunak
Larru-beteko jaiak
Aurten ditugunak.

Sanandresetarako
Arduraz urtero
Nabil bero-bero
Alegatu nahiean
Negarrak atero.
Denekin kunplizea
Raroa da edo
Ezin asmatu dugu
Saiauta gero...
Ai, aurten jende dena
Kontentu balego!

Odolki, lantegi ta...
Rekorrak balantzan,
Mundua alabantzan.
Aizue, herritarak,
Izan esperantzan!
Zabiltzate denok
Tentearen antzan,
Ez doaz-ta alferrik
Gureak gorantzan.
Igaro Sanandresak
Kantu eta dantzan.



**ORMAIZTEGIKO
UDALA**

Festak ondo pasa!!!



Zubiye kiroldegian 'Los Incansables' txarangarekin. Partaideek gutxienez 16 urte izan beharko dituzte. Sariak lortu ahal izateko bertan parte hartzea ezinbestekoa izango da. Sariak ondorengoak izango dira: lehenengo saria 210 eurokoa; 10 sari 60 erokoak; Herrian egun guztian zehar girorik onena jartzen duenarentzako: 120 euro.

23:00etan: Gaubela taldearekin dantzaldia enparantzan.



Azaroak 30, igandea: Ander deunaren eguna: Jubilatuaren eguna:

Egun guztian zehar: Haurrentzako parkea, Urbeltz pilotatokia.

11:00etan: Tolosako Musika Eskolako dultzaineroen goiz eresia, herriko kaleetan zehar.

12:00etan: Legazpiko Santikutz abesbatzak abesturiko

Meza Nagusia Ormaiztegiko zaindaria dugun Ander Deunaren omenez eskainia.

13:00etan: 'Jexusen Jazpana', Jexus Telleria Jazpanarekin eta Jexus Mujika Trikitixarekin herriko enparantzan.

11:00etik 14:00etara: Herriko enparantzan: Ormaiztegiko XVII. Odolki lehiaketa, VI. Odolki osagaien azoka eta lehiaketa, bertako produk-

tuen azoka eta erakusketa. Ormaiztegiko herritarren artean Euskal txerriaren produktuz osaturiko bi otar zozketatuko dira.

13:30ean: XVII. Ormaiztegiko odolki lehiaketaren sari banaketa eta dastaketa herriko enparantzan, Baso-Txulo eta Barduliarrak elkarteen laguntzarekin. Jarraian ikusleek lehiaketara aurkezturiko odolkiak dastatzeko aukera izango dute.

18:30ean: Gabiriako Goruntz dantza taldearen saioa Zubiye kiroldegian.

Abenduak 1, astelehena:

13:00etan: Mikel Saralegi harrijasotzailearen eta 2 aizkolariren herri kirol jaialdia, enparantzan.

Egun guztian zehar: Haurrentzako parkea, Urbeltz pilotatokia.



San Andres, 31

☎ 943 882772 (etxea)

☎ 943 161366 (arrandegia)

ORMAIZTEGI

ARANA TABERNA

Jai zoriontsuak opa dizkizue!

☎ 943 16 02 05 ORMAIZTEGI

MURUA harategia

- Bertako haragia
- Odolki eta txorizoak



Maioira plaza

ORMAIZTEGI ☎ 943 88 27 64

Eguneroko menua

Karta

KUKO

j a t e t x e a

Berjadegi plaza z/g

☎ 943 88 28 93

ORMAIZTEGI

IKER MARKINEZ

Toki mugatua dagoenez eskaerak aurrez egitea komeni da.

ESTANKO d e n d a

- ✖ Egunkari eta aldizkariak
- ✖ Opariak
- ✖ Eskolako gaiak
- ✖ Mertzeria
- ✖ Janariak

Festa onak pasa!

☎ 943 88 77 24

Serapio Mujika Plaza, 3

ORMAIZTEGI

UNTXUNDEI garajea



OSINALDE karrozategia

☎ 943 88 28 21

☎ 943 16 07 06

ORMAIZTEGI

Maiatzaren 25eko hauteskundeetarako osatu ziren Herri Plataformak: **"5.303 goierritarroi gure eskubide politiko eta zibilak zapaldu dizkigute EAJ, EA eta Aralarrek"**

Goierrin erakunde demokratiko eta legitimoen alde: errespetatu herritarren borondatea' aldarrikatuz, prentsaurrea eskaini zuten Herri Plataformek azaroaren 16an Beasainen. Herri Plataformek emandako datuen arabera, 11 plataformek 5.303 boto jaso zituzten Goierrin; hau da, guztira 34 zinegotzi. "Baina dagoeneko 5 hilabete pasa dira Goierriko udalak osatu zirenetik, eta inola ere ez zaigu onartu eta errespetatu goierritarren borondatez dagozkigun ordezkari eta eskubideak".

Herri Plataformatako ordezkariak gogoratu zuten, "jada 6 hilabete pasa dira Udal Hauteskunde ez demokratiko haiek ospatu zirenetik. PP eta PSOEn helburua izan da ezker abertzalea bizitza politikotik desagerraraztea, honela Euskal Herriaren nazio eraikuntzaren motorra gelditzea asmotan. Helburu hori lortzeko, ordea, behar-beharrezkoa zuten, besteak beste, ezker abertzaleak gure udaletan lan egitea galeraztea. Horregatik, ukatu zitzairen Herri Plataformei, Goierrin 11 plataformari, hauteskundeetan aurkezteko eskubidea. Hala ere, oztopo guztien gainetik, gure eskualdean herri programa ezker-tiar eta abertzaleak defenda-



Herri plataformetako ordezkariak eta ezker abertzaleko kideek prentsaurrea eskaini zuten azaroaren 16an Beasainen.

tzen dituzten 11 plataformek 5.303 boto jaso zituzten, eta boto kopuru horri Goierrin 34 zinegotzi dagozkio".

EAJ, EA eta Aralarri kritika

Udalak osatu zirenetik 5 hilabete pasa diren arren, "inola ere ez zaigu onartu eta errespetatu goierritarren borondatez dagozkigun ordezkari eta eskubideak. Oro har EAJk, EAK eta Aralarrek onartu egiten dute egoera ez demokratikoa bizi dugula. Hitzek egoera salatzen dute, kasuren batean itxurakeriak egin eta eskubideren bat aitortu zaigu (aktak eta informazioa jasotzekoa, batzorde irekietan boto eskubiderik gabe parte hartzekoa...)... Baina ez zaigu onartzen dagozkigun ordezkarietza politikoa eta eskubideak. Izan ere, udalak, herrietako erakundeak (udal patronatuak, zaharren egoitzak...) eta eskualdeko erakundeen organoak (Goieki, Sasieta...) osatzerakoan, plataformen ordezkariak baztertu egin dituzte. Honela, ez da-

gozkien ordezkarietza, alkate-tza, zinegotzi karguez, asignazio ekonomiko, udaletan gehiengo absolutoz... jabetu dira. Bide batez, haien gestioari alternatibak eskaini eta haien gestioa kontrolatu eta oposizioa egiten duenaz, libratu nahi izan dute".

2. mailako herritarrak

"Beraz, apartheid politikoa ezarri digute milaka goierritarroi, gure eskubide politiko eta zibilak zapalduz, bigarren mailako herritar izaera kondenatuz, eta legea betetzearen aitzakiarekin, egoeraz baliatzen ari dira eta udalak ere, herritarrengandik gertuen dauden erakundeak, estrategia faxista espainiarren zerbitzura ari dira jartzen.", salatu dute Herri Plataformek. "Agian espero zuten denborarekin giroa lasaitu eta egoera "normalizatu" egingo zela. Bizi dugun salbuespen egoera, ordea, bere gordintasun osoan agertzen jarraitu zaigu eta Estatua estrategia errepresibo txikitzaile orokorra ari da burutzen

gure herriaren aurka. Horregatik galdera zuzena egiten diegu Goierriko udaletako alkate eta zinegotzi guztiei, EAJ, EA eta Aralarri: jabetzen al zarete bizi dugun egoeraren larritasunaz eta hartzen ari zaiten arduraz? Estrategia honen zerbitzura jarraituko duzue, ala behingoz behar bezalako duintasuna izango duzue egoera honi aurre egiten eta Euskal Herriaren eta euskaldunon eskubideen alde jartzeko?", galdetu dute Herri Plataformatakoek.

Eskaera

"Estatuaren estrategiari aurre egiteko eta gure udalen zilegitasuna berreskuratzeko, eskaera sinple eta demokratikoa egiten diegu: ardura politikoz joka dezatela, errespetatu ditzaatela hauteskundearen emaitzak eta neurriak har ditzatela gure udaletan eta eskualdeko erakundeetan goierritar guztion borondatea eskubide osoz ordezkaturia izateko. Ez digu balio esateak egoeraren ardura Madrileko gobernuarena dela, momentu honetan EAJ eta EA legediaren aplikazioaz haratago ari baitira joaten, eta haien esku baitago gure herrietan egoerari buelta emateko neurri zehatzak hartzea. Gu geure aldetik prest gaude Goierriko erakunde guztietan ere elkarlanean aritzeko, gure Herri Programak aurrera eramateko eta Euskal Herri osoan eskubide guztiak errespetatuko dituen egoera lortzeko lan egiteko, baldin eta dagokiguna onartzen eta errespetatzen bazaigu. Borondaterik bada, posible da", gehitu zuten.

Elkartasunezko gaztaina festa

Aurreko larunbatean, hilak 15, elkartasunezko gaztaina festa ospatu zen arratsaldeko 6,30etan Guraso Elkarateak eta Legorretako Udalak antolatuta. Joan den urtean egingadako festan, sagardoa eta ardoa bi enpresek eskaini zuten, fakturaren dirua kobratu beharrean ONGari ematea eskatu baitzuten. Aipatu behar da, gaztainak prezio berezian lortu zituela Legorretako dendariak, eta honez gain bere irabaziari uko egin. Aurtengo festan baso bat erosi behar zen 3 eurotan, eta ondoren nahi hainbat gaztaina eta sagardo edo ardo dastatzeko aukera izan zen.

Kataluniatik pozik

Katalunian 7 egun pasa zituzten Legorretako Ugaro Herri Ikastetxeko ikasle batzuk aurreko hilean. Bidaia hau Ministeritzak, Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz antolatzen duen 'Eskola Ibiltarietako' Programan txertatu da. Urriaren 21etik 27ra bitartean burutu

zuten. Bisitaldi honetan zehar hauek izan ziren bisitatu ahal izan zituzten leku aipagarriak: Ramblak, Bartzelonako Kaia, bertako Aquarium-a, Katedrala, Güell Parkea, Sagrada Familia Katedrala, Tarragona eta bere aztarna erro-matarrak, Zoologi museoa, Metroa, Piriniotako Nuriako Harana, Bartzelonako erdi aroko auzoa eta Palau de la Generalitat.

Yoga ikastaroa

Legorretako Udaleko Kultur Batzordeak Yoga ikastaroa antolatu du Kutxa Gizarte-Ekintzaren laguntzarekin. Ikastaroa Sanatana Dharma Yoga Elkarateak emango du, astearte eta ostegunetan arratsaldeko 7etatik 8,30etara Patxi Ezkiaga Kultur Etxeko Balioanizdun Gelan. Ikastaroaren iraupena sei hilabete-takoa izango da, azaroaren 8tik maiatzaren 18ra.

Zelai Amenabarro

Patxi Ezkiaga saritua

Patxi Ezkiaga idazle legorretarrak bigarren aldiz lortu du Irun-go Hiria Literatur Sariaren irabaztea. Duela lau urte 'Udazkene-rako hamar kantu' lanarekin euskarazko poesia sailean lortu zuen garaipena. Aurtun eleberri sailean izan da saritua 'Munduaren amaierako kalea' liburuarekin. Patxi Ezkiagak hamaika urte eman ditu historio honetan lanean, idazten, berridazten, zuzentzen... 'Munduaren amaierako kalea' XVI. Mendeko Europan dago kokatuta Miguel Serveten moduko heterodoxoek bere bizitzetan zehar jasan zituzten zigorretan oinarriturik.

Nahiz eta hasi zuenetik Ezkiagak ez duen inoiz proiektu hau baztertu, azken urteotan beste sari batzuk jaso ditu, hala nola Euskadi Saria 'Zure haragi bereko' liburuarekin eta Euskaltzaindiarena, duela bi urte, 'Bigarren haurra' eleberriarekin.

25 urte 'Zapas' hil zutela

25 urte pasatu dira, Legorretako 'Zapas' hil zuenetik. Aurreko ostiralean, hilak 14, egin zitzaion omenaldia, ohiko kontzentrazioa eta afari eder batekin.

Kultur asteko museko irabazleak

Kultur Asteko egitarauaren barnean jokatu zen Legorretako IX. Mus Txapelketa Azkarra Bilkoin K.K.E.-n. Aurtengo honetan, Joseba Larrauri eta Jose Luis Murua bikotea izan zen garaile. Bigarren postua, Joseba Artola eta Kepa Iturrioz bikote gazteak lortu zuten. Hirugarren eta laugarren, aldiz, Patxi eta Xabier eta Patxi eta Jose Manuel bikoteak geratu ziren.

Haurrentzako filme emanaldiak

Azaroak 30: 'Spirit (el corcel indomable)'.

Abenduak 7: 'Un padre de cuidado'.

Abenduak 14: 'Los Simpson'

Urtarrilak 11: 'Luces, camara, dispara, show time'

Jubilatuentzat loteria

Azaroaren 17tik abenduaren 17ra bitartean, jubilatuei eguberrietako 3 eurotako loteria banatuko zaie. Horretarako, Jubilatuen bulegotik pasatu beharko da, eguerdiko 12etatik 1etara.

6 ADOSATU BERRI LEGORRETAN

Muguruza Etxegintza S.A.-k goi mailako 6 etxebizitza adosatu eraikitzen ditu

Informazioa eta salmenta:

943 85 73 54

San Andres eguna

Santuaren egun berean, azaroaren 30ean ospatuko da San Andres ermittan. Auzoan hildakoen aldeko meza 12:00etan izango da. Bertan, udazkeneko fruituak bedainkatuko dira. Ondoren, herriko txistulariak eta udalaren laguntzaz eskainitako hamaiketakoa.

44 haur dantza ikastaroan

5etik 12 urte bitarteko 30 neska eta 14 mutil hasi dira herri eskolak antolatutako dantza ikastaroetan. 4 taldeetan banaturik, ostiraletan, 16:30etik 19:30era aritzen dira beheko eskolan. 5-6 urtekoen irakasle Naiara Oiarbide eta Ane Arrieta arituko dira eta gainerakoekin Saioa Arostegi.

Haur abesbatza

Kanturako zaletasuna sortu eta herriko koruaren etorkizunari aurre egin nahirik, Segurako haur abesbatza pasa den azaroaren 13ko bileran osaturik geratu zen. Julen Telleria, Joxemari Telleria, Jexux Mari Ormazabal eta Xabier Olano koruko batzordekoak izan dira ekimen hau

San Nikolas Txiki, abenduaren 6an

Maddi Montero Ormazabal, aurtengo obixpo txikia

Azaroaren 17an, eskolako lehenengo mailako 6 urteko 14 neska-mutikoen artean egindako zozketan, Maddi Montero Ormazabali tokatu zaio obixpo txiki janzteko ohorea. San Nikolas txikiaren historian, lehen aldia izango da neska bat obixpo jantziko dena.

Kantu eskea

Etxeberriko zaldi txikiaren gainean, herriko haurrez lagundurik aterako da kantu eskera. Eguerdia aurretik, herriko kaleak eta auzoak zeharkatuta mojen komen-



Antonkaleneko Bittor, abestu dioten neska-mutikoei goxoak botatzen, iaz.

bultzatu dutenak. Dagoeneko, 8tik 14 urte bitarteko 15 haur hasiko dira abendutik aurrera asteen behin entsaiatzen Kultur etxean. Mutiloak eta zeraindarrei irekia. Zuzendari lanean Leire Lozano zegamarra arituko da.

Futbola

Asteburuko emaitzak: **Errejonak:** Orioko 1-0 Segura. **Jubenilak:** Segura 1-4 Oiartzun. **Kadeteak:** Añorga 15-0 Aizkorri. **Infantilak:** Aizkorri 0-20 Antiguo-

Ondarreko gaztaia txapelkun

Azaroaren 15ean Zegaman burutu zen Urbia eta Aizkorriko artzainen arteko V. gaztaia txapelketa irabazi zuen Felix Goiburu herritarrak, 35 partehartzaileen artean. Iazko edizioan ere berak egindako gaztaia izan zen hoberena. Felixek, bigarren eta hirugarren sailkatuekin (Zeraingo Maria Jesus Iñurrategi eta Zegamako Jose Migel Azurmendi) batera, Seu d'Urgellen jokatu den Piriniotako gaztaia txapelketan parte hartuko du.

ko. **Alebinak:** Aizkorri 10-5 Billabona.

Asteburuan etxean: **Kadeteak:** Aizkorri-Beti Gazte, zapatuan, 11:00etan. **Errejonak:** Segura-Pedrusko, zapatuan, 17:00etan.

Labur-labur

● Pasa den azaroaren 16an burutu zuten Segurako 'Pako'ek euren urteroko bazkaria.

● **IV. Futboleko makrofesta,** ez da gabonetan izango. Udaberri aldera antolatzeak asmoa dute futbolekoek.

● **Mus txapelketa.** Zopajale elkarteak antolatuta, abenduaren 12an, elkartean bertan, afaldu ondoren.

● **Gabon saski bana** zozketatuz, errifak atera dituzte txirrindulari elkartekoek eta Elorri Kultur elkartekoek.

tuan amaituko dute ibilbidea. Irteera lekua eta ordua zehaztu gabe daude oraindik.

Talo tailerra

Arratsalde, herriko talogileekin, taloak egiten ikasi eta gozatzeko aukera izango dute neska-mutikoei plazan.

'Arginsolas' abesbatza

Ondoren, Ordiziako Jakintza ikastolako 'Arginsolas' gazte abesbatzaren emanaldia izango da. Lekua zehaztu gabe.

● **Eneko Agirrezabalek** 2. postua lortu zuen, 1. urteko juniorren mailan azaroaren 16an Irungo krosean, 5,4 km-tan.

● **Kirol eskolarra.** Areto futbola, azaroaren 22an, mutil benjaminak lazkaotarren kontra. **Mendi irteera:** Aratzera, azaroaren 23an, 8,30etan plazatik irtenda.

● **Umetxokorako guraso zaintzaile** gehiagoren beharra dago, umetxea ireki, txukundu eta itxi txandaka egin ahal izateko. Umetxean bertan izena eman behar da.

● **2004rako udal tasek,** batzaz besteko %4ko igoera izango dute. Zaborraren tasa %7a igoko da. Udala, beharra duten familiak ordaindu gabe geratzeko aukera aztertzen ari da.

Joseba Telleria

Dirulaguntza Bikorora

Segurako udalak herrialde ez garatuatarako bideratu izan duen aurrekontuaren %0,7, Congoko Errepublika Demokratikora bidali izan da Luis Argiñeneko M. Luisa Elorza mojaren birtatez, Bikorora hain zuzen. M. Luisak udalari igorritako txostenean, diru horrekin lortu den arroza garbitzeko makina baten erosketaren berri ematen du. Berau, arroz ekoizpena handitze-ko eta ekoizpen proiektu berrietarako erabiliko da.





Sagarrak huts egin du aurten

Zazpigarren ekitaldia izan behar zuen errezil sagarraren inguruan egiten den festak aurtengoan, baina hutsik geratu beharko du 2003ak. Antolatzailerik ez dagoenez ez da egingo errezil sagar lehiaketarik ez baserriko produktuen azokarik. Orain bi urte ere egin gabe utzi zen, lehenagaitik.

Ezintasun horren eragile bakarra sagar falta da. Iazkoa oso sagar-urte oparoa izan

bazen, zikloak agintzen duenez aurtengoak kaxkarragoa behar zuen, bi urtetik behin ematen baitu sagarrondoak indarrez. Baina normala baino gutxiago etorri da, ordea, eta gabezia izugarria dago bai soroetan, bai frutetan.

Udan egin zuen bero sapa jotzen dute nekazariak lurra nagitasun honen errudun. Errezil sagarrak -beste produktu asko bezala- egosi egin zituen eguzki-galdak, haztea eta ugaritzea eragotziz. On-

dorioz baserrietan uzta urria jaso da, bai behintzat aurreko urteekin alderatuz, eta azokaren ospea mantentzeko ezgauza dirudi.

Antolatzaileen iritziz errezilaren eskasia ikusita bi arrazoi nagusitu zaizkie azoka aurrera ez eramateko erabakia hartzerakoan. Batetik, orain arteko partehartzea bermatzerik ez dagoela; edizio bakoitzean goraka joan da sariketara aurkeztutako ekoizleen kopurua (iaz 20na lote sagarretan eta sagar-goxoetan), eta besterik ezean eutsi ezin ahal izatea ere atzerapausa

litzateke. Bestetik, azokako bisitariei zor zaien begirunegatik egin da atzera; lehen mailako kalitatezko produktuak ez eskaintzekotan erosten arreta eta nahia ase gabe geratuko delakoan. Kalitatezko gaiak bakarrik ziurta lezake etorkizuna, antolaketaren arduradunen iduriz.

Honenbestez, datorren urtekoari begira jarriak daude dagoeneko antolatzaileak, oraingoan ezin izan den nahi-gabearekin. Ea aurtengo ezak hurrengorako kemen gehigarria dakarren.

Aimar Maiz

Labur-labur

● **Dantzari txiki eguna** hil honen 16an ospatu zen, eguraldi euritsuak ikuskizuna goibeldu bazuen ere; pilotalekuan bildu behar izan zuten talde guztiek. Lau herritako dantzariak izan ziren partaide. San Andres arratsaldean du hurrengo emanaldia Goruntz taldeak, Ormaiztegin.

● **Goierriko herririk euskaldunena** da gurea, bai biztanle proportzioan euskaldun gehiena duena behintzat. Eustatek 2001ean egindako azterlanaren esanetan %94,65ek daki euskaraz Gabirian. Erdaldun proportzio txikiarena ere hemen dago.

● **Behobia-Donostia** laisterketa herrikoiean herritar talde txo bat irten zen, iragan azaroaren 9an: Andoni Aizpuru, Xabin Andola, Ibon Elgarresta, Jon Ander Elgarresta eta Mikel Osinalde bederen -aditzera izan dugunetan- hiriburuko Bulebarreraino iritsi ziren, 20 kilometroko korrikaldia osatuta.

PROMOZIO BERRIA SEGURAN ESTRUCTURAS GARAIZ S.L.k ERAIKITZEN DITU

12 apartamentu
8 etxebizitza duplex
19 garaje
4 lokal edo garaje

Lehen mailako eraikuntza prezio onenean

Informazioa eta salmenta:

943 85 73 54

Euskara Merkataritzara

'Euskara Ordiziako Merkataritzara' egitasmoa, euskararen sustapenerako Ordiziako Udalak herriko establezimenduetzat martxan jarria daukan proiektua da. Bezeroarekiko harreman guztietan, ahoz zein idatziz, euskara erabiltzeko zerbitzu eta laguntzak eskaintzen ditu Udalak, bertako Euskara Zerbitzuaren bitartez, establezimenduen irudian eta harreman komertzialetan ere euskara komunikazio hizkuntza nagusia izan dadin lortu nahian.

Aste honetan bertan hasi eta abenduaren erdialdera arte egingo diren lan nagusiak honako hauek izango dira:

- Euskara Merkataritzara egitasmoaren katalogo berria zabalduko da herriko establezimendu guztietara: Ordiziako Udalaren material eta zerbitzu eskaintza jasotzen duen katalogo berria prestatu da, 'Zure esanetara' katalogoa, hain zuzen ere. Establezimenduetarako Euskara Merkataritzara egitasmoak eskaintzen dituen testu, material edota zerbitzu guztiak ageri dira katalogo horretan eta urtean zehar edozein mo-

mentutan zerbitzuak erabili ahal izateko aukera eskaintzen du.

- Udalaren zerbitzu eta laguntzen erabilpena sustatzeko, establezimendu guztietako arduradunekin harremanetan jarriko da Udala datozen egunetan. Udaleko Euskara Zerbitzuaren honako zerbitzuak eskaintzen ditu: establezimenduan erabiltzeko testuen itzulpena, ageriko kartel eta idatzien diseinu eta prestaketa euskarazko testuarekin, gremio desberdinetako hiztegi espezifikoak, euskara ikastaroetara joateko diru-laguntzak, establezimenduen kanpoaldeko errotulu komertziala euskaraz ipintzeko dirulaguntzak, ordutegi-txartelak, merkealdi garairako kartelak eta establezimenduetan erabiltzeko bestelako hainbat inprimaki-eredu (albaranak, fakturak, erreziiboak,...).

Ordizian merkataritza, ostalaritza edota beste zerbitzuetako establezimenduetan lan egiten duten profesionalak animatu nahi dra, Udalak eskaintzen dituen bitartekoak erabili eta euskarak bere establezimenduan duen pisuari indar berria emateko.

Ardoa dastatzeko garaia

Iaz ekainean ospatu bazen ere ardo-astea, hamaikagarren edizio hau aste honetan izango da. Astelehenetik ostiralera dastaketa gidatuak izan badira oinarri, larunbata eta igandean nahi duenak ardoa edateko aukera izango du. 21 upategietako ardoak izango dira Enparantza Nagusian.

Gazta, ezti, odolki eta txistorraren txanda

Ardoaz gain beste jaki batzuk ere ezin aipatu gabe utzi. Ardo astearen barruan 'Ordizia txapeldun', euskal jaietan txapeldunak izan diren artzainek aurkeztutako gazten XVI. lehiaketa jokatuko da. Berau larunbatean eguerdiko 12etan hasiko da eta azken 10 urteotan txapeldun izan diren artzainek hartuko dute parte euren gaztaiekin.

Gabonetako postal eta idazlan lehiaketa

Eguberriak gainean ditugula eta DLH.ko 3. zikloko eta DBH.1eko ikasleei postalak egiteko txanda iritsi zaie. Oraingoan ere Goiztiri AEK-k Euskararen Aholku Batzordea eta herriko ikastetxeekin batera gabonetako postal eta idazlan lehiaketa antolatu du. Jakintza Ikastola, Urdaneta Herri Eskola eta Oianguren Batxiller Institutuko aipatu ikasleek Euskal Herriko Gabonekin zerikusia duten postalak egin eta aurkeztu beharko dituzte. Idazlan lehiaketan, aldiz, DBH.2ko ikasleek hartuko dute parte. Hauek gaia libre izango dute.

Ordiziako Udaleko Euskararen Aholku Batzordearen baitan etorriko dira sariak. AEK-ko euskara ikasleak izango dira postal sarituak zeintzuk izango diren aukeratuak dutenak eta idazlanez goi urratseko ikasleak eta irakasleak beraiek arduratuko dira. Sariak Lazkaoko Gerriko liburudendan erabiltzeko diru-tikeak izango dira.

Lanak abenduaren 11a baino lehen entregatu beharko dira ikastetxeetan bertan (oinarriak ere bertan daude) eta behin sarituak izan diren lanak argitara emanda ikusgai izango dira postalak abenduaren 19tik urtarrilaren 7ra bitartean Barena Kultur Etxeko atarian.

Mendi astea

Mendizaleak Elkarrekin Ordiziako Udalaren laguntzarekin hainbat ikusentzunezko eta hitzaldi antolatu ditu azaroaren 24tik hasi eta 28ra bitartean. Astelehenean Javier eta Inigo Mutiloak Hego Amerikan Mendilerro Zuria, Andeak eta Peru bitartean izandako esperientzien berri emango dute. 25ean Jose Ramon Agirre "Marron" ataundarraren txanda izango da. Hau hegan egitearen ametsen inguruan arituko da. Asteazkenean Pedro Garcia herriarraren txanda izango da. Uztailan Pamir mendian izan zen eta bertan bizitakoak kontatuko ditu. Ostegunean Mikel Saez De Urabain Denali, McKinley eta Messner bidez arituko da eta azkenik, Josune Bereziartuk emango dio amaiera mendi asteari. Hau eskalada eta paisajeez arituko da ostiralean. Hitzaldi guztiak arratsaldeko 7:30etan izango dira.

Txotxongiloak Herri antzokian

Bulgaria eta Italiatik etorrita Varna Puppet Theatre eta Burambo taldeek txotxongilo emankizunak eskainiko dituzte abenduaren 2 eta 3an. Bulgariako taldeak bi antzeslan eskainiko ditu, astearte goizeko 11etan bata 'El perrito azul Pedro' eta arratsaldeko 6etan bestea 'Fantasías folclóricas'. Asteazkenean Burambo talde italiarraren txanda izango da. Honek bai goiz eta baita arratsaldean ere lan bera aurkeztuko du, 'El perro y el zorro'. Ekitaldiok Herri Antzokian izango dira.

Arratsaldean, berriz, eztiak hartuko du dio lekukoa gaztari. Eskualdeko VI. Ezti Lehiaketa jokatuko da 5etatik aurrera ardo postuak egongo diren leku berean, hots, Enparantza Nagusian.

Azaroa amaitzerako odolkiak ere protagonista izan nahiko du Ordizian. Gipuzkoako V. Odolki Lehiaketa jokatuko da azaroaren 28an. Eta, amaitzeko, Tomas Deuna eguna gertu dela Euskadiko VI. Txistorra lehiaketa izango da abenduaren 19an.

Aitor Calvillo

V. Gazte festak azaroaren 22an

Berriro ere iritsi dira gazte festak. 5. urtea dugu aurtengoan. Azaroaren 22an ospatuko da honako egitarauarekin.

9:00etan: Futbito lehiaketa.

11:00etan: Patata tortila lehiaketa.

12:00etan: Antzar Gazteak txarangak alaituriko poteo herrikoia.

14:30ean: Bazkari herrikoia (paella erraldoia). Bazkalostean, bertsolariak, trikitilariak eta euskal abestiak.

19:00etan: Antzar Gazteak txaranga.

22:00etan: Brigada Criminal taldearen kontzertua.

23:30ean: Hira taldearen kontzertua.

01:30ean: DJ Bull.

Oharrak

Futbito lehiaketarako izen ematea dagoeneko itxirik badago ere, jakin, izen eman duten lehen zortzi taldeek hartuko dutela parte. Hau herriko plazan jokatu da.

Bazkarirako tiketak hartzeko epea asteazkenerarte izan zen herriko hainbat taternetan lortu zezakeelarik.

Goizean zehar paella erraldoia nola egiten den ikusteko aukera izango da.

Nikiak salgai

Eskuragarri izango dira orain urte batzuk egun honetarako atara ziren nikiak. Taila eta kolore ezberdinak salduko dira eta nola ez beste bi aukerekin; mauka edo manga motza edo luzea. Norbaitek nahi izanez gero salmenta postura inguratu beharko du, bertan azalduko zaizkio dau den prezio ezberdinak.

Euskal Herriko Itzuliaren amaiera Lazkaon

2004. urteko Euskal Herriko Itzuliak, apirilaren 9an izango du amaiera. Hainbat lan burutu ondoren Lazkao Kirol Elkartek bere helburua lortu du, hain zuzen ere, itzuli honetako etaparen bat Lazkaon jokatzeko. Oraindik gauza asko zehazteko geratu arren, badakigu azken bi lasterketak herrian izango direla. Itzulia bukatzeko bi lasterketen faltan Lekunberrin hasiko da goizeko proba eta Goierriko bailaran sartuko dira Urkilaga, Olaberri, Larraitx, Gaintza edo Zaldibitik pasatuz eta Lazkaora sartuko dira Lazkaomenditik. Arratsaldeko proba, berriz, erlojuaren aurkakoa izango dute. Ziurtasun guztiarekin ez bada ere, Olaberri eta Lazkao arteko proba izango da, eta helmuga, Hiri-goien kaleko punturen batean izango da.

Hau dena lortzeko dirutza handia suposatzen duela garbia da eta gogoratu beharrean gaude azkeneko bi garagardo festen irabaziak bertara zuzenduak izan direla eta orain loteria saltzen dabilta.

Liburuaren azoka abenduaren 12tik 14ra

Abenduaren 12, 13 eta 14an, Udaletxe azpiko arkupeetan liburu azoka egingo da. Ordutegia: ostiralean 5etatik 8etara; larunbatean, 11etatik 2etara eta 4etatik 8etara; igandean, 11etatik 2etara. Liburu eta diskoek %10eko deskontua izango dute.

12an, ostiralean, 17:00etan: azokaren irekiera ofiziala egingo da, Lazkaoko Musika Eskolako eskutik. 19:00etan, liburu-aurkezpena: "Manila konexioa", Jon Arretxe. 19:15ean: liburu-aurkezpena: "Uda betiko balitz", Xabier Mendiguren. 19:30ean: disko-aurkezpena: "Karidadeko benta".

13an, larunbatean, eguerdian eta arratsaldean, liburu-eta disko-aurkezpenak: Jasone Osoro, Tere Irastortza, "Mal de ojo", Iñaki Mendiguren, Patxi Zubizarreta...

Beste hainbat ekintza osagarri ere izango dira: trikitilariak, gaztaina egosiak, salda...

Azokaren inguruko kulturaldia abenduaren 15etik 19ra bitartean izango da: liburu eta diskoen aurkezpenez gain tertulimeriendak eta diaporama-emanaldiak ere izango dira arratsaldeetan Gerriko Txokoan eta Maizpiden: "Lazkaoko dukeak eta dukesak, kondeak eta kondesak", "Goierri: euskararen egoera herriz herri", "Helloak Txinan"...

Rwandarekiko elkartasun ekitaldiak

Lazkao Rwanda Taldeak Rwandarekiko elkartasun ekitaldiak antolatu ditu. 5. orrian duzue informazio zehatza.

Odol ematea

Gaur ostirala, 18:30etik 20:30era bitartean odola emateko aukera izango da Udaletxeko aretoan.

Aitor Tello

Itzuli honetako beste kasu azpimarragarri bat Goierri mailan ditugun lau txirrindulariak profesional mailan izango litzateke. Aurtengo den Perez Arrieta zegasarra, Euskalteletik eta pasa den urtean izan zen Dioni Galparsoro ataundarra eta dagoeneko oso ezagunak diren Aitor Garmendia eta Joseba Beloki.

Joseba Beloki talde berriarekin

Pasa den astean sinatu zuen bere talde berriarekin bi urtetarako. Talde frantziar bat da La Boulangère eta bere zuzendaria Jean René Bernaudeau izango da.

Futbola

Errejonalak larunbatean neurtuko dira Arizti Handin Urnieta-aren aurka arratsaldeko 15:30etik aurrera. Areto futbola: Errotaundik kanpoan jokatu du gaur gauean Zaldibiren aurka.

Ama lur elkartea ikastolarekin

Azaroaren 23an, Murumendira izango dute irteera. Hurrengoia Urtarrilak 18. Egun guztirako Urkiolara.

San Martin azoka arrakastatsua

Antzinatik datorren tradizioari eutsiz Zegaman ganadu feria egin zen joan azaroaren 15ean; bertan herriko ganaduen arteko lehiaketa eta erakusketa egin zen eta eguraldia ateria lagun, Zegamako kaleak jendez bete ziren; ganadu, artisau, nekazaritza makina, pintura erakusketa, perraketa lanak zuzenean, gazta antzinako erara egiten, Egur Museo eta ehungintza lanak ikusten.

Gazta lehiaketa

Guzti horren tartean, Urbia eta Aizkorriko Artzainen arteko 5. Gazta Lehiaketa burutu zen kiroldegian. Aurtente, bertan parte hartzeko eremua Gipuzkoa eta Arabako Partzuergoa edota hauek osatzen duten herriak izan badira ere, aurtente, lehiaketa eremua zabaltzea erabaki zuen Udalak, eta Aizkorriko Parke Naturalak bere barnean hartuko dituen udalerri guztietako artzainei ateak zabaltzea erabaki zen. Esan, partehartze handia izan zuela lehiaketak, bertara 35 gazta aurkeztu baitziren. Epaimahaian pertsona ezagun asko izan genituen, Txomin Perurena, Ederne Pasaban, Fernando Garcia Herrero (Zegama-Aizkorriko Mendi Maratoiaren irabazlea) Miquel Colom (Seu D'Urgellko Alkate-ordea), Pello Garcia Amiano, etabar.

Azkenik, eta bigarren urtez jarraian, Felix Goiburu Errazkinen segurarraren gazta aukeratu zuten hoberena bezala, bigarren postuan, Ze-

raingo Maria Angeles Inurra-tegiren gazta eta hirugarren Zegamako Jose Migel Azurmendiren gazta. Epaimahai-kideek, orokorrean maila oneko gaztak aurkeztu zirela aipatu zuten.

Ganadu lehiaketa

Herri mailako Gandu Lehiaketan honako hauek suertatu ziren garaile:

Ardiak: Mari Paz Oiarbide

Bildotsak: Inazio Katarain

Mestizo behiak: Pedro Asurmendi

Pirenaika behiak: Xanti Katarain

Suiza behiak: Mari Carmen Argüelles



Zezena: Xanti Katarain

Etxe behorra: Aloña Larrea

Mendi behorra: Ibai Aizpeolea

Zaldia: Antton Urbistondo

Ekitaldi ugari

Azaroaren 15ean, arratsaldean, Herriarren arteko eskuz binakako Pilota txapelketa burutu zen eta gazteetan Arkaitz eta Estebe Ariznabarreta gailendu ziren eta helduetan Ru-

ben Zabaleta eta Jesus Zabaleta. Kiroldegian giro bikaina sortu zen, herritarren aartean.

Zegamako Udalak, San Martin feriarako, Urbia eta Aizkorriko Artzainen arteko Gazta Lehiaketa irabazten duen artzainaren 12 gazta sarritzat duen errifa ateratzen du eta zozketa, Gazta Txapelketa egiten den egun berean egiten du, kiroldegian bertan, artzain sariduna zein izango den jakin aurretik. Aurtengoa, zenbaki sariduna 2689 zenbakia izan da eta Lazkao Jon Soraluze Aierdiri tokatu zaizkio Felix Goiburu artzain segurarraren (aurtengo txapeladuna) 12 gaztak.

Aipatu beharrekoa da, azaroaren 14an izandako profesionalen pilota partiduetan eta azaroaren 16an izandako DV Torneoko pilota partiduetan jendetza ugari bildu zela Zegamako Pilotalekura eta azaroaren 16an, arratsaldeko 17:00etan Takolo, Pirritx eta Porrotxen "Katxi porreta" emanaldian ere kiroldegia bete egin zela. Azken finean, pilotazale, ganaduzale, gazta zale, artisau zale eta pailazoen lagunek zertaz gozatua izan zutela aurrekoa asteburuan Zegaman.

Ederne Albiz



Mus txapelketa Otzaurten eta Kasinoan

Datorren larunbatean, azaroak 22, arratsaldeko 16:00etatik aurrera Mus Txapelketa jokatu da Otzaurteko Bentan. Izenematea, egun berean egin behar da, arratsaldeko 16:00etatik aurrera. Bikoteko 20 euro izango da izenematea. Bikote txapeldunarentzat 600 eurotako saria da, bigarren bikotearentzat 300 eurotako saria, hirugarren bikotearentzat 150 eurotako saria, eta seigarrengo bikoteraino hainbat sari daude prestatuta.

Kasino mus txapelketa, azaroaren 21ean eta 28an jokatu da. Izen ematea txapelketa hasi aurretik egin beharko da.



II. Boluntario eguna, azaroaren 29an

Udaleko Gizarte Ongizate saila, Beasaingo boluntarioen elkarteekin elkarlanean, II. Boluntario eguna ari da antolatzen azaroaren 29rako. Goizeko 11etatik ordu biak aldera izango da. Beasaindarrei, boluntario gisa lanean ari diren eta Ongizate Sailarekin harremana duten elkarteak ezagutzera ematea da helburua. Horrekin batera, Udalaren eta elkarte hauen arteko harrema-

nak bultzatu nahi da. Argazkian, Gurutze Gorriaren stand-a azaltzen da. Boluntario elkarte bakoitzak bere lekutxoak izango du, beraien lanari buruzko informazioa herritarren eskura jartzeko. Trikitilariak alaituko dute giroa. Eguerdiko 12ak inguruan, haurrentzako tailerrak izango dira. 13:00etan azkenik, Erretiratuen Etxeko Gurea abesbatzaren emanaldia izango da.

Euskara ikasketak egin dituztenei diru laguntzak

2002ko irailetik 2003ko abuztura bitartean, edozein mailatako Euskalduntze-Alfabetatzeko Euskara-ikasketak Euskaltegiren batean (Udal Euskaltegietan salbu) egin dituzten 16 urtez goitiko ikasle beasaindar guztiek, diru-laguntza eskaerak aurkeztu ahal izango dituzte Udaletxeko Harrera-bulegoan azaroaren 30era bitartean, 9:00etatik 13:00etara. Ikastaro horiek Iraleren edo Udal Euskaltegiaren laguntzarik izan badute edota Administrazioak antolatutako ikastaroak izan badira, ez dute diru-laguntza hau jasotzerik izango.

Laguntzak, ondorengoak izango dira: %50a langabetu txartela ekartzen dutenentzat; %33,33a gainerako guztientzat; 6 urtez behetiko seme-alabak dituzten gurasoek, ikasturtearen hasieran egindako kanpainaren arabera, %75eko laguntza bereziak jasoko dituzte.

Eskatzaileak, klase-orduen %80etara joan izana frogatu behar du ibili den Euskaltegiko agiriaren bidez eta Beasainen errodatuta egon. Agiri hauek aurkeztu behar dira: matrikula-

Udazken kulturalari errepasoa

● **'Odolkien errege'** Orioko Kepa Loidi dugu. Azaroaren 8an jokatu zen XIX. Odolki lehiaketara 25 odolkgile aurkeztu ziren guztira. Bigarren postuan, lau aldiz irabazle eta 2002an ere irabazle izandako Beasaingo Olano harategia suertatu zen. Eta hirugarren postuan, bi aldiz irabazle izandako Ormaiztegi Iñaki Campos.

● **XVI. Errezil sagar, fruitu eta barazkien lehiaketan** sari-tuak hauek izan ziren. Errezil sagarren lehiaketan Lazkaoko Altune baserriko Maria Jesus Mujikak lehen saria, Gabiriko Agerre Berri baserriko Maria Etxezarretak 2. saria eta Idiazabalgo Kalbario baserriko Ramon Aseginolazak 3. saria. Fruitu eta barazkien lehiaketan berriz, Lazkaoko Biona baserriko Agapito Garendia izan zen lehen sarituta. 2.a Lazkaoko Altune baserriko Maria Jesus Mujika eta 3. saria Beasaingo Atarri-Eder baserriko Maria Rosario Txintxurretarentzat izan zen.

● **Pintura lehiaketa.** Arrano Kultur Elkarteak antolatutako 12. Aire Zabaleko pintura lehiaketara 58 partaide aurkeztu ziren, Euskal Herriko puntu desberdinetatik etorriak. Jokin Telleria, Javier Soto, Jesus Zulueta, Jose Mari Telleria eta Juan Ayesta margolari goierritarrek egin zuten epai lana. 660 euroko lehen saria Debako Jose Inazio Trekuk eraman zuen. 2. saria, Getxoko Jose Zubiaurrek eta 3. saria ere beste getxotar batek eraman zuen, Carmen De la Fuentek. Akzesita berriz, Bilboko Richar Perezentzat izan zen. Herritarrei ematen zaien sarietan, lehena Iban Aranbururentzat, 2.a, Angel Friasentzat eta Moises Garciaentzat izan zen 3.a. Gaztetxoei ematen zaien sarietan berriz, Diana Orbe de Santillan, Iker Dorronso-ro, Alain Torres izan ziren sarituak. Koldo Gutierrez eta Aroa Muñoz izan ziren sarituak.

Nekane Altuna

ordainagiriaren fotokopia; euskaltegiko agiria, klase-orduak, asistentzi orduak eta ikasketa-maila adieraziz; NAREN fotokopia; langabetu txartelaren fotokopia, egoera horretan daudenek; eta kontu korronte zenbakia.

Nortasun Agiria berritzeko data

Nortasun agiria berritu nahi dutenek Beasainen egiteko aukera izango dute azaroaren 27an eta abenduaren 11n Udal bulegoan. Txanda Udaltzaingoa ematen da goizeko 6:35etik 21:25era. 125 zenbaki banatzen dira. Nortasun agiria egiteko lan taldea Donostiatik etortzen da eta ordutegia honako hau da: 9:30etatik 13:15era. Egindakoak jasotzeko ere Udaltzaingotik pasatu behar da.

Odol ateraldia

Odol Emailen Ordezkaritzak jakinarazten du, azaroaren 25ean egingo dela Odol ateratzea Urbi-etxeko lokalean, arratsaldeko 6etatik aurrera. Ohiko emaileraz gainera, berriren bat animatzen bada, bertan azal dadila.

Jubilatuek Iratxera irteera

Herriko adinekoen egoitzak irteera berri bat antolatu du. Oraingoan Iratxe aldera izango da. Abenduaren 4an goizeko 9,15etan aterako dira Quadernako bodega bisitatzeko asmoz. Bertan hamaitaketa egingo dute.

Jarraian berriz bazkaria Iratxe Hotelean izango dute eta partaideek opari bana jasoko dute.

Aipatu eguneko ibilaldian parte hartu nahi duzutenek, izenematea, azaroaren 24 eta 25ean, goizeko 12:00etatik 13:00era eta arratsalde 17:00etatik 19:00etara bitar-

tean elkartean bertan egin behar da.

Hitzaldiak

Azaroaren 25ean eta 26an, Julian Bereziartua sendagilearen hitzaldiak izango dira Kultur Etxean, arratsaldeko 5,30etan.

Txapelketak

Toka, bote, punttu eta iel txapelketak jokatu dira azaroaren 27an, arratsaldeko 4,30etan, Jubilatuen elkartean. Hurrengo egunean, berriz, mus txapelketa jokatu da ordu berean eta leku berean.

Mendi astearen azken txanpa

Azaroak 19, asteazkena:

Josune Bereziartu: 'Bloketik Naranjora'. 19:30ean, Kultur Etxean.

Azaroak 20, osteguna:

Eneko Pou: 'Josemite (El Capitan)'. 19:30ean, Kultur Etxean.

Azaroak 21, ostirala:

Juanito Oiarzabal: 'Lurreko basamortuak'. 19:30ean, Kultur Etxean.

Jarraian, II.Argazki lehiaketako sari banaketa.

Azaroak 23, igandea:

Goizean, Ormaiztegi-Legazpi-Ormaiztegi mendi ibilaldia. Irteera, goizeko 8,30etan, plazatik. Helmuga, Itxune erretegi aurrean. Partaideei hamaiketako eskainiko zaie.

Arratsaldean, gaztaina jatea, plazan, 18:30ean.

9 herritar

Behobia-Donostia lasterketan

Jokatu berria den Behobia-Donostia proban hainbat herritarrek parte hartu zuen. Guztira aurtengoan partaidetza aldetik errekorra lortu zen, 11.227 izan zirelarik aipatu lasterketan parte hartu zuten korrikalariak. Urtero bezala aurtengoan ere herritar ugari hurbildu zen lasterketak dituen 20 kilometroak burutzeko asmoz.

Guztira bederatzi izan ziren lasterketa burutu zuten herritarrek, partaideen zerrenda ondorengo da eta jarraian adierazten diren denborak behar izan zituzten proba burutu ahal izateko:

Jon Intxausti Ugalde: 1:20:34; Iban Iturri Urkia: 1:22:50; Juan Karlos Diez Soto: 1:32:02; Jose Ignazio Oiarzabal Urkiola: 1:36:15; Urko Mazorriaga Azpiaz: 1:39:17; Jose Luis Diez Revenga: 1:39:18; Jose Luis Txaparro Mayoral: 1:41:10; Iosu Berasategi Etxepetaleku: 1:58:31; Asier Etxarri Eskisabel: 2:04:05.

Aitziber Murua

Koldo Uribe-etxeberria Basetxea lehiaketan

Erratzun bizi den herritarra, Koldo Uribe-etxeberria, Euskal Telebistako lehenengo kateako Basetxea lehiaketan ari da parte hartzen. Hurrengo alean jasoko dugu bere esperientziaren berri.

VI. Odolki osagaien lehiaketa

Azaroaren 30ean, VI. Odolki osagaien azoka eta lehiaketa Joxe Luis Mendizabalen omenez, jokatu da aurtan. Lehiaketan parte hartzeko baldintzak hauek dira: herritarrek parte hartu ahal izango dute; platera azaroaren 30ean, 12:00etarako udaletxean aurkeztu beharko da; partaideei dieta emango zaie platera prestatzen izandako gastuei aurre egiteko helburuarekin. Sariak honakoak izango dira: lehenengo saria: sari berezia eta garaikurra; bigarren saria: garaikurra, eta aurkezpen onenaren saria.

Herriko jaiak

San Andres jaietako egitaraua 14-15. orrietan duzue.



- Apalak, manparak
- Mantenimendu eta biltegiatzea
- Altzarigintza industrial
- Bulego altzariak

☎ 943 88 77 90 Zumarralde 10
Faxa: 943 88 82 67 ORMAIZTEGI



MUJIKA Jatetxea

Ormaiztegiko odolki txapelketan babesle ofiziala

- ✓ Menuak kartan
- ✓ Ezkontza eta janaldietan berezituak

☎ 943 80 15 07 - 943 80 16 99
Liernia Auzoa MUTILOA



Ekintzaz beteriko udazkena

Ondorengo asteetan zehar hainbat ekintza eramango dira aurrera.

Azaroaren 29an, Nabalde Kultur Elkartean aurkezpena izango da Altzagako udaletxean gaueko 8:30etan. Elkarte honen helburua gure historia, kultura eta nortasuna

ezagutaraztea da. Elkarte hau unibertsitate eta enpresa munduko profesional anitzek osatuta dago. Altzagako aurkezpenean beraien burua aurkezteaz batera ikusentzunezko emanaldi bat izango da ikusgai.

Abenduaren 14an, Kul-

tur Elejiraren barne, 'Morgan pirata gaiztoa lapurretan' ize-neko antzerkia izango da ikusgai Arteagain pilotalekuan arratsaldeko 5,30etan, Zenbat Gara Antzerki Taldearen eskutik. Ondoren gaztaina jana izango da bertarazten diren gutzientzat.



Atsedan Tokiren gestioa

Azken hilabeteetan antzemango zenuten Atsedan Toki itxita egon dela. Arrazoia, hori gestionatzen zutenek utzi egin dutela izan da. Beste zenbait herritan gertatzen ari den bezala, gure herrian gestioa eramango duena aurkitzea ez omen da erraza eta etorkizunari begira, irtenbide egokiena aurkitzeko asmoz, Udaleko eta Jubilatuen ordezkariak adostasun batera iritsi dira, horregatik, hemendik aurrera bertako gestioa eramango dutenak, Atsedan Toki beste taberna bat bezala

erabiliko luke, hori bai, bertako eserlekuetako zati bat jubilatuentzat egokituta. Gainera orain arte bezala, jubilatuentzat salneurri bereziak mantenduko dira.

Eman zaion irtenbidea, zailtasun hau errazteko baliogarria dela iritzi diote Udaleko eta Jubilatuen ordezkariak. Hori dela eta aurki Atsedan Tokiren gestioa konkurtora aterako da. Gai honetaz interesatuak daudenak udal-etxera jotzera besterik ez dute.

Doltza Barandiaran

Euskal Herriko trikitilari txapelketa

Igande honetan hilak 23 jokatu da XII. Euskal Herriko Trikitilari Txapelketa Nagusia. Bertan partu hartuko dutenen artean herritar bat dago, Aiora Urdangarin, berarekin bikotea osatu duen Maitane Aierza izango du alboan. Aiora eta Maitane orainarteko kanporaketak gainditu ostean, 5. postuan iritsi dira finalera. Zita Zaldibarren dute igande honetan. Arratsaldeko 5,30etatik aurrera.

Txirrindularitzari buruzko mahaingurua

Dioni Galparsoro Euskaltel-Euskadiko txirrindulari gaztearen peñak eta Aizkoate kultur elkarteak, ostiral honetarako, hilak 21, ekitaldia antolatu du. Hasiera arratsaldeko 7,30etan eman go zaio, txirrindularitzari buruzko mahainguru batekin. Aizkoate kultur elkartearen egingo da eta hizlariak Julian Gorospe, Iban Mayo, Egoi Martinez eta Dioni Galparsoro bera izango dira, Fermin Aramendi moderatzaileak gidatuko duenari. Mahainguruaren ondoren, afaria antolatuta dago Bitor Jatetxean, iluntzeko 9ak aldera, aurrez txartela hartu dutenentzat. Afalostean sarien zozketa egingo dute. Babesle Ataungo Udala da.

Astebukaerako partiduak

Astebukaera honetan gure bi ordezkariak etxetik kanpo jokatu dituzte beren partiduak. Autonomikan jokatzen duten mutilek 8. jardunaldia dute jokoan eta Bar Buenetxearen aurka jokatu dute. Neskek mutilek baino partidu bat gutxiago jokatu dute, beraz 7. jardunaldi honetan La Salle talde beasaindarren aurka neurtuko dituzte indarrak.

PSIKOLOGI KLINIKOA



Helduen,
umeen, bikoteen
eta sexologi
tratamenduak

Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua

Elkargokide zenbakia: E-2644

RPS: 420/95

JM Arana, 1 - 2. esk. esk.

AURRE ZITA

☎ 943 887 221

☎ 610 020 041

BEASAIN



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

☎ 943 88 87 02

BEASAIN

Euskara Elkartea sortzeko bilera

Euskara Elkartearen bultzatzaileek bilera deitu dute azaroaren 29rako, larunbata, arratsaldeko 4,30etan Kultur Etxean. Batzar horretan, Elkartea eratzekeko urratsak emango dira. Batzordea aukeratu da eta bazkide izan nahi dutenek izena emateko aukera izango dute.

Elkarte berriaren bultzatzaileek ahalik eta herritar gehien bildu nahi dute. Antolatzaileek jakinarazi dute, bileraren helburua informazioa

eman eta bazkideak egiten hastea dela. Lanerako konpromezurik hartzea ez dela beharrezkoa dio Euskara Elkartek.

Taldea apirilean hasi zen bilerak egiten. Orain ekimenak aurrera egin dezan, taldea eratu behar da eta bazkideak behar dituzte. Euskara Elkartearen lehendabiziko lana, Herri Aldizkaria argitaratzea izango da. Horretarako lanean ari direla jakinarazi dute.

Eskola Kirola

Eskola Kirolean aritzen diren herritarrek ondoko emaitzak lortu zituzten aurreko asteburuan.

Areto futbolak: Mutil alebinek 4-3 galdu zuten Ordizian, neska alebinek 1-6 irabazi zioten Segurako Laiotzi, neska infantilak bana berdindu zuten Lazkaon.

Esku pilota: Alebinek galdu egin zuten Seguraren aurka eta mutil infantilek irabazi egin zieten Lazkaoko San Benitokoei.

Atletismoa: 14 lagunek parte hartu zuten Irunen jokatuak krosean.

Asteburu honetarako partidukoak

Areto futbolak: Larubatean Idiazabalen: 9:30ean Neska Infantilak Jakintzaren aurka; 11:30ean, Kadete neskak, Anoetakoren aurka; 12:30ean. Neska Alebinak Jakintzaren aurka. Kanpoan: Neska eta Mutil Benjaminak, Lazkaon 10:30ean. Mutil Alebinak Zaldibian 9:00etan; Mutil Kadeteak 11:00etan La Salleren aurka.



Espaloi berria

Idiazabal eta Olaberria arteko bidean falta de espaloi zatia egiteko lanak datorren urtearen hasieran hasiko dira. Udalaren eta Foru Aldundiaren artean egingo dituzte obrak, errepide zati hori Diputazioarena baita. Foru Aldundiak dagoeneko eman du espaloia egiteko baimena eta Udalak proiektua eskatu du.

Espaloi berria, Beasain aldera goazela, ezkerreko aldean egingo dute. Horrek, rotondatik beherako bidean aldaketak egitea ekarriko du.

Kongorako laguntza

Alejandro Aldanondo herritarra Kongon misiolari dagoenetik, Idiazabalen, Afrikako herrialdeari laguntzeko ekimen bat baino gehiago izan dira. Arropa eta materiala bildu dira, Udalaren aurrekontuen zati bat beraiei eman zaie.

Bide horretan sakontzeko asmotan, herritar batzuk, Kongori laguntzeko Gobernu Kanpoko Erakundea (ONG bat) sortzea erabaki dute. Herrian bildutako laguntza Kongora helarazteko arazoak daude gaur egun. Idiazabalen ONG bat edukiz gero, gauzak asko erraztuko liratekeela uste dute antolatzaileek.

Taldea, lanean hasi berria da eta laguntzeko prest dagoen edozein herritarri harrera egiteko prest daude.

Laburrak

● **Sanblasak** antolatzekeo bilerak hasi dira. Ostiraletan arratsaldeko 7,30etan Kultur Etxean.

● Jubilatuen Elkartek **Gaztaina jana** antolatu du azaroaren 22rako (larunbata) iluntzeko 8,30etan Pilarrenean. Elkarteko bazkideek, bestalde, nahi dutenean hartu ditzakete loteria txartelak.

● Pilotaleku zaharraren ondoan dagoen **zabor ontzietako bat erreta** agertu zen azaroaren 15ean.

Xabier Urteaga

berriz aranburu

ERROPADENDA

Nagusia, 8

☎ 943 88 04 53

BEASAIN



LADA
Ssang Yong

N-1, z/g
☎ 943 88 09 47

ARANDIA
Garajea

AUTOEN KONPONKETA

Iurre Auzoa
OLABERRIA

Iñaki Azurmendi Gipuzkoako aizkolari txapelduna: "Besteak enbor gainean zeudela ikusi arte ez nekien irabazi nuenik"


Aurtengo urterako zituen helburuak bete ditu Iñaki Azurmendi aizkolari arriarandarrak. Euskal Herriko finalean lan txukuna egin nahi zuen eta 4. postua lortu zuen. Gipuzkoakoan txapelaren lehian sartu nahi zuen eta txapelarekin itzuli zen etxera.

Euskal Herriko txapelketan iazko postu berdina lortu duzu, ez al zenuen hirugarren geratzeko itxaropenik?

Iaz Mindegia ez zegoen finalean, gainera, iaz txapeletik bost minutu baino gehiagora geratu nintzen eta aurten hiru minutu t'erdi azpitik, hirugarren postu horretatik minutu erdira. Hori dena kontutan hartuta aurrera pausoa eman dudala uste dut.

54 urteko gizona, Mindegia, oraindik ere zure aurretik.

Bai, hala da. Bere ofizioa ondo ikasia du, guk ere ikasten dugunean aurrera egingo du. Berezkua du Mindegia, gainera, orain ia aizkorara bakarrik dedikatzen da. Indarra asko galdu du baina ofizioa oso ondo ezagutzen du, artista handia da. Egur txikitari beste edozein adina da.



Txapelaren bitrina Almerian

Iñaki Azurmendik Itziarren irabazi zuen txapela Almerian preso duen Mikel anaiari bidali zion. "Bera dut jarraitzailerik finena eta oso gustura hartu zuen", dio.

Gipuzkoakoa irabaztea sorpresa izan al zen?

Nik Euskal Herrikoa nola joan zen ikusita banuen itxaropena. Banekien zaila izango zela eta lehen hirurak bedertzi segundoren barruan bukatu genuela ikusi besterik ez dago. Ikusteko polita izango zen baina bukaera oso gogorra egin zitzaidan.

Azken egurrean irabazle ikusi al zenuen zeure burua?

Ez, nik bukatu eta besteak enbor gainean zeudela ikusi arte ez nekien irabazi nuenik. Lan erdietan bigarren nindoan eta azken egurrera ere Peñagari-kano ni baino zortzi segundo lehenago iritsi zen. Gainera, azken egur horretan adar txiki bat atera zitzaidan eta aldamenetara begiratu gabe ahal den azkarrena egurra ebaki-

tzera joan nintzen. Ikusleak oso gainean zeuden eta bukaera oso polita izan zen.

Aizkolariak hasieratik dena ematera ateratzen dira. Zu, berriz, lasaiago hasten zara. Zer dela eta?

Askotan hasieratik dena ematen badut gero okerrago ibiltzen naiz. Presaka ari naizenean huts gehiago egiten ditut eta hor denbora galtzen da. Sei kolpe alferrik ematen badiotzu denbora galtzeaz gain beharrezkoa ez den nekea pilatzen da. Aurretik joan eta besteak atzean utziz gero, ondoren arnasa lasaiago hartu eta besteak etsitzeko aukera izaten da. Azkar hasiagatik, orain errekupeazio ona dut eta uste dut agoantatuko nukeela. Baina, hasieratik lasaiago hasi eta 10 segundo

galduagatik, gauzak garbi edukita, nik uste dut denak irabazten aterako ginatekeela.

Zeren ondorioa izan da aizkoraren gailurrera iristea?

Entrenatu, ofizioa ikasi... Orain zentratuago aritzen naiz, lehen ingurukoei begira denbora gehiago galtzen nuen eta urduriago aritzen nintzen. Plazan ez nuen dena ematen.

Aizkolariak pixkanaka joaten dira hor gora iristen. Azken urteetan ni izango naiz jauzi hori azkarren eman duena. Adibidez, Nazabalek aita aizkolaria zuen eta 14 urterekin hasi zen erakustaldietan. Ni, berriz, serioan 25 urterekin hasi nintzen. Berak 13 final jokatu ditu eta nik 2, hori asko nabari da.

Nola lortzen da hobetzea?

Aldamenekoei kasu egin behar zaie. Kanpotik beti hobeto ikusten dira gauzak. Nik Arrospide, Ugarteburu eta azken urte honetan beti ondoan izan dudan Esnaola legorretarra ditut laguntzaile.

Desafiorik entzuteko prest al zaude?

Orain entzutea tokatzen zait, beraien helburua bete ez duenak bota beharko du erronka. Dena dela, urte luzea izan da eta orain atsedean hartzeko asmoa dut.

Joxi

Iturgintza - Berogintza - Gasa

Carrefour merkatalgunea

Tel. - faxa: 943 88 19 87 - 676 178 488

OLABERRIA

ARRIETA

JATE TXEA

943 88 00 02 OLABERRIA

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak

Mikel Urkiola ormaiztegiarra raid probetako pilotua: "800 kilometro egiteko behar diren 11 ordutan erritmoari eustea da zailena"

Baja Portugal proban bere kategoriko lehen postua lortu berrian izan gara Mikel Urkiola pilotu ormaiztegiarrekin, oso ezaguna ez den raid probak nolakoak diren jakiteko asmoz.

Portugalen paper bikaina eginda itzuli zarete.

Bigarren egin dugu eta lehenengo turismo kategorian. Lehenengo geratu zena prototipoa da, Paris-Dakarrera joaten direnak bezalakoa eta zortzi mekaniko dituzte. Gu, berriaz, kopilotoa eta neroni bakarrik joan ginen furgoneta batean gure autoa hartuta. Besteetan 4. postu inguruan geratu izan gara, gure aurretik aurrekontu handiak dituzten pilotuak geratu izan dira, baina oraingo honetan irabaztea lortu dugu.

Nolakoak dira Raid lasterketak?
Raid, todoterreno rally txa-



Mitsubishi Pajero V6 autoa du Urkiolak eta raid probetan parte hartu ahal izateko ondorengo laguntzaileak ditu: Horgobisa, Errotaundi, Girotze, UZ kaldereria eta Thelmalan.

pelketa da. Jendeak ulertzeko Paris-Dakar motako lasterketa da. Bi egunetako lasterketa izaten da. Normalean ostiralgoizean egiaztatzea izaten da eta arratsaldean 6-7 kilometroko proba egiten da. Arratsaldeko lasterketa horretan erabakitzen da larunbateko proba nagusiko irteera ordena.

Raidetan ez da rally-etan bezala aurretik ibilbiderik ezagutzen. Proba hasi baino ordu laurden lehenago oharren liburu bat ematen dute. Liburu horretan ageri da jarraitu behar den ibilbidea, bigurutzeko guztiak eta aurkituko diren zulo, harri edo oztopoak. Bidean galtzea ere nahiko ohikoa izaten da.

Ezusteko asko izaten al dira raidetan?

Auto asko geratzen dira ez atzera eta ez aurrera, edo itzulita. Kontutan hartu 400 edo 800 kilometrotan mendi pistetan ibiltzen garela eta edozein huts nahikoa da autoa itzultzeko. Gu orain arte beti osorik atera gara. Azkenekoan arbola bat jo eta aleta pixka bat hondatu genuen. Hori izan dugu ezbehar bakarra.

Zer da zailena edo gogorrena?

Zailena lasterketa erritmoari eustea da. Adibidez, 800 kilometro egiten 11 ordu behar izan genituen. Gogor hasten bazara oso zaila da bukaera arte erritmo horri eustea. Baina, lasterketa denez, lasai ere ezin zara joan.

Nolako autoek parte hartzen dute?

3 modalitate daude. T1 guk parte hartzen duguna da, serieko autoak dira, kalekoak bezalakoa. Hor iraultketentzat barrak jarri eta gurrpil ba-

Iñauti
HORTZ KLINIKA
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 23KI. KOLEGIATUA
RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK
JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN ☎ 943 88 46 28

Alpe
SUKALDE ALTZARIAK
sukalderik goxoenak

Mariarats 10 Beasain
Tfno/Fax 943 88 86 84



kutxa

gizarte ekintza



Argazkian Mikel Urkiola bakarrik ageri bada ere, 18 urte bete berriak dituen Samuel Benítez zumarragarra du kopilotoa.

koitzeko 15 cm-ko ibilbidea duen amortiguadore bat gehiago jartzen uzten dute. T2 modalitatean kaleko autoak dira baina lasterketatarako prestatuak. Motorra moldatua, enbrage gabeko kanbio kaxa, suspentsioa 30 cm-ko ibilbidearekin... T3 modalitatean parte hartzen dutenak, berriz, prototipoak dira.

Zuen kirolak komunikabideetan ez du oihartzun handiegirik. Ba al dago zaletasunik?

Baja Aragon-eri hurrengo asteburuan ordu laurdena eskaintzen dio telebistak. Bertara Paris-Dakar-eko auto as-

to etortzen dira eta oso proba garrantzitsua da. Lasterketa hau antolatzen hasi zirenean askoz ere garrantzi gehiago ematen zitzaion medioetan. Hala ere 22 telebista katek jarraitzen dute proba eta 30.000 ikuslek ikusi zuten bertatik. 400 kilometroko ibilbidean 2 itzuli ematen zaizkionez, jende asko egun pasa joaten da bertara.

Sei probetatik hiruretan parte hartzea diru faltagatik ala denbora faltagatik izan da?

Batez ere diru faltagatik. Asteburuetan izaten direnez, lanean, ostirala bakarrik gal-

Datorren urterako itxaropentsu

Iaz lasterketa batean bakarrik parte hartu zuten. Aurten Espainiako txapelketako 6 probetatik 3tan izan dira, Katalunian, Baja Aragon eta Baja Portugal. Baja Aragon 800 kilometro inguruko proba da eta gainontzekoak 400 ingurukoak. Iaz lehenengo 11. bukatu zuten eta aurtengoetan ere postua hobetzen joan dira, 7., 4. eta irabazle. Raidetan garrantzitsua da lasterketaren parte hartu eta lauak bukatu dituzte, hau ikusita animaturik daude eta datorren urteak txapelketa guztia egin nahi dute.

tzen da. Arazo hori konpondu daiteke, baina, diruarena zailagoa da. Lasterketetara biok bakarrik joaten gara eta tarte-ko anaiak laguntzen ditu. Hala ere proba bakoitza milioia inguru kostatzen da. Autoari guk egiten diogu dena eta ez da garestiegi ere ateratzen. Gu bezala 10en bat auto ibiliko gara, gainontzekoek pentsa ezinezko aurrekontuak dituzte.

Nolatan hasi zineten raiden munduan?

Azken 6 urteetan lasterketak ikustera joan izan gara eta beti izan dugu barruan parte hartzeko har hori. Askotan esaten genuen ez genuela gehiago ikustera joan behar, hurrengoan parte hartu behar genuela. Honela 2001 urtean auto bat alokatu eta Baja Aragon-en parte hartzea erabaki

genuen. Alokatura geneukala auto bera erosteko aukera izan eta tratua itxi genuen.

Raidetan ibili aurretik, urte pare batean, Azpeitiko Labakarekin rallyetan kopiloto bezala aritua nintzen. Asfaltora baino gehiago gustatu zait beti mendiko pistetan ibiltzea. Ez da hain teknikoa, abiadura gutxiagoan ibiltzen da, baina, askoz proba luzeagoak dira eta gehiago gozatzeko da.

Entrenatzeko aukerarik izaten al duzue?

Oso gutxi, hemen inguruan ez dugu toki egokirik. Noizean behin Bardeetara joaten gara. Baina, horretarako egun osoa behar duzu, bertaraino joan, entrenatu, itzuli, autoa garbitu...



Zubi termiko hausturak leihoak
Bulego eta bainuetako manparak
Ateak, erakusleihoak eta balkoiak

GEURIA
ALUMINIO AROZTEGIA

943 880 162
Iñauti Ind. 14
OLABERRIA

JOAKIN ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak
filtroak, olioak, engrasea
frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
harezko txorrotadak

Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran 943 18 72 57



ITXUNE ERRETEGIA



Gazte giroa

- **Taberna musikala.** Larunbat gauetan karaokea
- Etxeko sukaldaritza
- Eguneroko menua
- Pintxo, ogitarteko eta ifernuko txorizoa

Gabirialde, 14 943 88 73 51 - 943 88 89 92
ORMAIZTEGI

ZINEA

GOIENIZ:

Abenduak 27: 'Marie-jo y sus dos amores', 21:00etan, Beasaingo Usurbe Antzokian.

Abenduak 4: 'La bici de Ghislain Lambert', 21:00etan, Beasaingo Usurbe Antzokian.

BEASAIN:

'Emil eta detektibeak', azaroak 22, Usurbe Antzokian, 17:00etan.

'Asterix eta Obelix', azaroak 27, Usurbe Antzokian, 9:00etan.

'Piglet', azaroak 29, Usurbe Antzokian, 17:00etan.

'Firewalk', abenduak 2, Usurbe Antzokian, 12:30ean.

'Shin Shan', abenduak 6, Usurbe Antzokian, 17:00etan.

LEGORRETA:

'El señor de los anillos. Las dos torres', azaroak 27, 20:30ean, Herri Zineman.

'Spirit', azaroak 30, 17:00etan, Herri Zineman.

'Un padre de cuidado', abenduak 7, 17:00etan, Herri Zineman.

'Los Simpson', abenduak 14, 17:00etan, Herri Zineman.

ORDIZIA:

'Veronica Guerin', azaroak 21, 22:15; azaroak 22, 19:30-22:15; azaroak 23, 19:30-22:15; azaroak 24, 19:30.

'La leyenda del pirata Barbanegra', azaroak 23, 16:45ean.



GOIENIZ

'Marie-Jo y sus dos amores'

Robert Guédiguian
(Frantzia, 2002)

Robert Guédiguian ('Marius eta Jeanette' eta 'Bihotz Bihotzez' lanen egilea, besteak beste) berririo dugu Marsella argitsuan, bere betiko aktoreekin, bere emazte eta musa den Ariane Ascariderek, noski, baina oraingoan ez du gizarte klaseei buruzko istorio bat osatu, amodiozko film erromantiko hunkigarri eta tragikomiko bat baizik. Bi gizonezkonenganako maitasunean harapatutako emakumearen bizi-penak kontatu arren, ez da ezusteko topaketatan oinarritutako ohiko maitasun triangelu komedia bat. Askoz urrunago doa, protagonistaren zalantza-zako sentimenduak kontatuz, emakume honek bi gizonak benetan maite baititu, neurri berean eta indar berarekin. Barne gatazka honen ondorioz, ezinezkoa egiten zaio maitale bat aukeratzea.

antzzeria

ALTZAGA:

Abenduak 14, Zenbat Gara antzerki taldearen 'Morgan pirata gaiztoa lapurretan' antzerkia, Artegain pilotalekuan, 17:30ean.

musika

LAZKAO:

Azaroak 22, Gazte Festen barruan, Brigada Criminal 22:00etan, Hira 23:30ean eta DJ Bull 01:30ean.

ORMAIZTEGI:

Azaroak 28, Triki-zio taldea, 23:00etan, plazan.

bestelakoak

ALTZAGA:

Azaroak 29, Nabarralde Kultur Elkartearen aurkezpena, udaletxean, 20:30etan.

LAZKAO:

Abenduak 12, Ipuin kontaketa, Udaletxeko Batzar Aretoa, 17:30ean.

pailazoak

ORMAIZTEGI:

Azaroak 27, Kiki eta Koko pailazoen 'Anai Alai' ikuskizuna, 17:30ean, plazan.

Azaroak 29, Titiriteros de Binefar taldearen 'Azeriaren fabula', 17:00etan, plazan.

dantzak

ORMAIZTEGI:

Azaroak 30, Gabiriako Goruntz taldea, 18:30ean, Zubipe kiroldegian.

hitzaldiak

ATAUN:

Azaroak 21, Txirrindularitza buruzko mahaingurua. Hizlariak: Julian Gorospe Euskalteko zuzendaria, eta Iban Mayo, Egoi Martinez eta Dioni Galparsoro Euskalteko txirrindulariak. 19:30ean, Aizkoate kultur elkartearen.

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN



Abokatuak
Enpresen
asesoria eta
gestioa

e txekin

www.txekin.net

Etxebizitzen salmenta:

Legorreta
Beasain
Orendain

Tel/Faxa: 943 162 393 e.posta: zuzenki@euskalnet.net Elosegi, 16 LAZKAO

ikusentzunezkoak

ORDIZIA:

Azaroak 24, Javier eta Iñigo Mutiloaren 'Cordillera Blanca - Andes - Perú'. 19:30ean.

Azaroak 25, Jose Ramon Agirre 'Marron'-en, 'Hegan egitea: Gizakiaren ametsa', 19:30ean.

Azaroak 26, Pedro Garcia-ren 'Pamir 2003', 19:30ean.

Azaroak 27, Mikel Saez de Urabainen 'Denali, McKinley-Via Messner', 19:30ean.

Azaroak 28, Josune Bereziarturen 'Eskaladak eta paisaiak', 19:30ean.

ORMAIZTEGI:

Azaroak 21, Juanito Oiarzabalen 'Lurreko basamortuak', 19:30ean, Kultur etxean.

erakusketak

BEASAIN:

Azaroaren 30era arte, Luis Mari Nuñezek ikatz-ziriz egindako marrazkien erakusketa Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan.

ORDIZIA:

Azaroaren 28ra arte, Federico Alonso artistaren lanen erakusketa, Barrenan.

mendi irteerak

BEASAIN:

Azaroak 23, Beasaingo-Mendizaleak: Kristinosera.

Azaroak 30, Beasaingo-Mendizaleak: Samiñora.

ORDIZIA:

Azaroak 23, Ordiziako Mendizaleak: Ganbo.

Azaroak 30, Ordiziako Mendizaleak: Finalistaren eguna.

Nerea Erauskin soprano ordiziarren kontzertua Ordizian

XVIII. Barroko aire zikloaren barruan, beste bi kontzertu izango dira Ordiziako Parrokian, iluntzeko 8etan. Azaroaren 21ean, Jordi Savall izango da. Antolatzaileen esanetan, kataluniarra da, ekitaldiko izarra. Dena den, zikloari amaiera emateko antolatutako saioa ere ezin gutxietsi. Azaroaren 29an, Nerea Erauskin ordiziar sopranoa izango da, Alejandro Zabala piano jolea aldamenean duela. Besteak beste, Scarlatti, Marcello, Bach eta Haendelen hariak eskainiko dituzte.



Txotxongiloak Ordizian

Abenduaren 2an eta 3an, Ordiziako Herri Antzokian, txotxongilo ikuskizunak izango dira.

Abenduak 2, asteartea: Bulgariako Varna Puppet Theatre taldearen 'El perrito azul Pedro', 11:00etan.

Abenduak 2, asteartea: Bulgariako Varna Puppet Theatre taldearen 'Fantasias folklóricas', 18:00etan.

Abenduak 3, asteazkena: Italiako Buramboren 'El perro y el zorro', 11:00etan eta 18:00etan.

GOARDIAKO FARMAZIAK

Astegunetan: Jauregi

(Santa Maria, 2 - Ordizia). 943 160949.

Azaroak 22-23: Atorrasagasti

(Bustuntza auzoa - Ordizia). 943 882934.

Azaroak 29-30: De la Cuesta

(Nafarroa etorbidea, 39 - Beasain). 943 880587.

Abenduak 6-7-8: Jauregi

(Santa Maria kalea, 2 - Ordizia). 943 160949.

Abenduak 13-14: Urbizu

(Kale Nagusia, 8 - Beasain). 943 880232.



SOLOZABAL AUTO-ESKOLA

Promozioa: auto ordua 12 euro

Aita Urdaneta ORDIZIA
☎ 943 88 72 76

IKASTEK AKADEMIA 2003-2004 IKASTURTEA

Goierriko akademia integral bakarra. Hezkuntzako profesionalek zuzendua.

ESKOLA LAGUNTZA

- * Gai eta maila guztiak
- * Lehen hezkuntza, DBH
- * Batxilergoa
- * Moduluak, Zikloak
- * Unibertsitate-maila

IKASKETA ARAZOAK

- * Errendimendua
- * Atentzioa
- * Ohiturak
- * Metodoak
- * Emozioen kontrola

GOIERRIKO UNIBERTSITATEA

- * Marrazketa teknikoak
- * Fisika
- * Matematika
- * Teknologia

Joan Iturralde, 5 BEASAIN ☎ 943 160 120

www.ikastek.net

Etxebizitzak

salgai

- ➔ Baserria salgai Zegaman. Lursailarekin. 650477988.
- ➔ Pisua salgai Beasaingo Oriamendi kalean. 943884945.

➔ Ordiziako erdigunean pisu eguzkitsua salgai. 100 m². 3 logela, sukaldea, 2 bainugela eta trastalekua. 657739591.

➔ Buhardilla salgai Beasainen, Arana kalean. 943180291.

errentan hartu

➔ Pisu txiki bat behar dut alokairuan Beasainen, Ordizian edo Tolosan. 943465724. Jabier.

➔ Beasainen, ahal dela Foru kalean edo Oriamendi kalean, pisu bila nabil. 627707143.

➔ Goierri etxebizitza alokatu nahi dut. 647424788.

errentan eman

➔ Urbasako mendi leerroan etxea alokatzen da, asteburu, zubi eta oporretarako. 948533981.

Lokalak

salgai

➔ Denda alokatzen da Ordiziako erdigunean. Eskaparatea dauka. Ondoko egokitua. 635736758.

erosi

➔ 150-200m² inguruko pabilioia erosiko nuke Idiazabal, Olaberria edo Beasain inguruan. 615793415.

Garajeak

errentan hartu

➔ Seguran edo Idiazabal garajea errentan hartuko nuke. 943801026. Arratsaldean edo gauean deitu.

erosi

➔ Beasainen, San Inazio kalean edo inguruan, garajea erosiko nuke. 661294041. 19:00etatik aurrera deitu.

errentan eman

➔ Beasainen garajea alokatzen da. 635208763.

➔ Lazkaon garaje itxia alokatzen da. 667866208.

Negozioak

salgai

➔ Taberna salgai Le gorretan. 943806123 - 943084943.

eskualdatzea

➔ Martxan dagoen taberna eskualdatzen edo traspasatzen da Ordizian. 943161628.

errentan eman

➔ Lazkaoko Gerriko taberna errentan eman nahi da, oraingo maizterren erretiroarengatik. Derrigorrezkoa euskalduna izatea. 943886500. Dendako ordutegian deitu.

Lagun bila

➔ Eguneroko Ordiziatik Eskoriatzara joan-etorria egiten duen norbaiten bila nabil, bertan lan egiten baitut. 943086444.

➔ Segurako 5 lagun gara eta aerobic-erako jende bila gabiltza. Ordutegia: astelehenean eta ostiralean, 19:00etatik 20:30era. 652760635 - 615783362.

Orubeak

salgai

➔ Gabirian, bi etxebizitzako etxea eraikitze-ko orubea salgai. 645712618.

Animaliak

salgai

➔ 10 xaxardi, bere kupo eta guzti, salgai. 651703227.

➔ Bost artzain txakurkume salgai. 943180291.

➔ Setter ingelesak salgai. Bakunatuak eta tatuatuak. Radentis de España eta Florimond de Rada Land jatorrikoak. 943084374 - 637721992.

opari

➔ 2 urteko ehiz txakurra opari. 696645880.

➔ Artzain txakurra opari. 943654329.

➔ Euskal artzain txakurra opari. 18 hilabete-koa. 943883307 - 943671829 (laneko ordutegian deitu).

Ibilgailuak

salgai

➔ Nissan Primera 1.6 gasolina salgai. 1994koa, SS-AT. 943151911/617085220

➔ Opel Kadet salgai. SS-AK. Itxiera zentralizatua. Beti garaje-egona. Prezio onean. 943882489 - 620575681.

➔ Honda vfr 750 motorra salgai. 275.000 pezeta. 943162308 - 610469916.

➔ Opel Astra 1.7 DTi salgai. Beltza. Llantak eta aleroia. 2001eko ekainekoa. Oso egoera onean. 9.015,00 euro-tan. 636812730.

➔ Opel Vectra salgai. Gasolina. SS-AV. Haize egokitua, ABS bikoitza, itxiera zentralizatua. Egoera onean. Prezio ekonomikoa. 653744914.

➔ Karabana salgai. Oso gutxi erabilia. Egoera onean. Nahi izanez gero, gordetzeko lekua-ekin. 943806566.

➔ 20 zaldiko BJR traktorea salgai. 943889647.

➔ Volvo 440, 1.7 salgai. Garaje-egona. Merke. 943653493 - 652774594.

GERTU abokatuak



- ➔ AHOLKULARITZA JURIDIKOA
- ➔ ENPRESA ZERBITZUAK
- ➔ ASEGURUAK

BEASAIN

gertu.asesoria@terra.es
www.gertuasesores.com

Kale Nagusia, 2
Telf: 943 16 21 92
Faxa: 943 88 36 33

ONGI ETORRI taberna - jatetxea

Eguneroko menua


eguerdi eta gauetan
larunbatetan ere bai

Afariak

bataioak
jaunartzeak

Tel: 943 88 99 07

Oriamendi, 40 BEASAIN



SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTÓLOGA



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

➔ Renault 19 salgai.
Diesela. 5 ate.
650679119.

➔ Honda NSR salgai.
125 R. 2001. urtekoa.
Kilometro gutxirekin.
Egoera onean.
650221487.

➔ Autokarabana salgai.
5 plazakoa. Prezio ekonomikoa.
661166591.

➔ Opel Vectra salgai.
Diesela. SS-AV. Haize egokitua, airbag eta itxiera zentralizatua.
4.500 euro. 676049931.

➔ Golf 1.6 salgai.
SS-AP. 1.500 eurotan.
Transferitua.
655741801.

Galdutako objektuak

➔ Urriaren 29an be-turrekoak galdu nituen Itsasondoko frontoian.
Jon. 645739672.

➔ Urriaren 26an Larraitx eta Txindoki artean, Rosa 30-06-01 idatzita daraman urte zurizko eraztuna galdu zen. Iñaki. 610047505.

➔ Irailaren 28an 6 urteko umearen txamarra galdu genuen Zaldibian. Urdin argia eta beigea.
943881938.

Bestelakoak

salgai

➔ Trialeko Scorpa motorra salgai. 1994ko modelo. Egoera onean. Prezio ekonomikoa.
658728385.

➔ Sutarako egur iharra salgai. 2 metrora moztua. 943723504.

➔ Egongelako erdiko mahaia (egur naturala eta rustiko estilokoa), 3 plazako sofa (egur egiturakoa) eta 80 x 1,90 neurriko erabili gabeko koltxoia salgai.
20:30etik aurrera deitu, 629734261.

➔ Accesol markako berogailu elektrikoak salgai. Urtebetekoak.
616698236.

➔ Haurren logelako armairua eta apalak salgai. 616698236.

➔ Egongelako armairua salgai. 616698236.

➔ Egurrezko sehaska salgai. 5 urtera arteko haurarentzat baliagarria. 670422051.

➔ Deville markako tximeneta salgai. Atearekin. 100 euro.
943085926.

➔ Egongelako altzari guztiak salgai: armarioa, mahaia, 4 sofa eta silloia. Dena berri-berria. 250.000 pezetan.
646048047.

➔ Intxaur egurrez txapatutako egongelako armarioa, 3 plazako sofa, plaza bateko 2 sofa, egongelarako kristalezko mahaia txikia eta kristalezko 3 lanpara salgai. Egoera oso onean. Dena 200.000 pezetan. Negoziagarriak.
943085147. Inor ez balego, mezua utzi.

Lana

eskaintzak

➔ Ingelerako irakaslea (Magisteritza, atzerriko hizkuntza), eskaintzen da haur eta gazteei klase partikularrak emateko. 615754348.

➔ Idazkari esperientziaduna eskaintzen da arratsaldetan bulegoko lanak egiteko.
645723316.

➔ 34 urteko Ordiziako neska arduratsua eta esperientziaduna, prest dago, haurrak edo helduak zaindu, etxeko lanak egin edo atariak garbitzeko. 658709527. Alma.

➔ Neska lizentziatu euskalduna eskaintzen da taberna batean edota dendari bezala asteburuetan lan egiteko.
610369746.

➔ Neska euskalduna eskaintzen da dendan, tabernan lan egin edo haurrak zaintzeko. Esperientziaduna.
635206858.

➔ Ingenieritza Informatikoko azken urteko ikasleak klase partikularrak emango lituzke.
943886226. Nagore.

➔ Beasaingo neska bat eskaintzen da haurrak zaindu eta behar baldin bada etxeko lanak egiteko. Haur Hezikuntzako ikaslea. Arduratsua. 653718090.

➔ Humanitate eta Enpresan lizentziaturiko mutil bat prest egongo litzateke 12-14 urte bitarteko gaztetxoei klase partikularrak emateko, laguntza behar duten edozein gairen inguruan. Taldeak 3 edo 4 pertsonakoak izango dira. 653744914.

➔ 20 urteko mutila prest dago edozein lanerarako. 637781384.

➔ Klase partikularrak ematen dira Idiazabal. Lehen Hezikuntza, DBH, ikasketa ohiturak, eta abar. Talde txikiak eta mailak.
658747901.

➔ Emakume bat eskaintzen da goizetan etxeko lanak egiteko.
658745046.

➔ 31 urteko neska prest dago arratsalde, 3etatik 8etara, haurrak zaindu, etxeko lanak egin edo dendaren batean lan egiteko. Esperientziaduna.
943800057. 20:00etatik aurrera deitu.

eskaerak

➔ Sagardotegi baterako zerbitzaria eta tabernaria behar dira. Esperientziadunak badira hobe. 607365743.

➔ Klinika laguntzaileak behar dira Beasaingo 3. adineko zerbitzu batean lan egiteko.
655717148.

➔ Gaintzako jatetxe batean zerbitzaria behar da. 943886243.

➔ Astebukaerarako zerbitzaria behar da. Euskalduna. Esperientziaduna bada hobe.
943880044.

➔ Pertsona euskalduna behar da asteburuetan taberna batean lan egiteko. 943886577 - 943160205.

➔ Goierriko jatetxe batean zerbitzaria behar da asteburuetarako.
630402575.

OSKARBI ARROPA GARBITEGIA

Arropa industrial mota guztiak
Ostalaritza
Bezeroaren instalazioetan bilketa eta entrega
Partikularrentzat mantak, edredoiak, buzoak...

Leku-Eder etxea- Senpere auzoa-Lazkao
Tel.: 943 88 40 90 - 669 872 261



Eskatu ordua: 609 601 310 - 943 087 234
Sanperio kalea, 5-behea ORDIZIA

OBRA PROIEKTUAK

Etxe berriak eraikitzeko
Birmoldaketak
Aktibitateak
Hirigintza

LDA arkitektura 649 95 94 14
GOIERI ETA TOLOSALDEAN



Ormaiztegiarrak 1932. urtean

Jose Urretak utzitako argazkia 1932.ko abenduaren 14koa da,

Zutik goiko ilaran ezkerretik eskuinera: Francisca Gurrutxaga, Juanito Aspiazu, Tomas Eskisabel, Vicente Mujika, Francisco Urreta, Angel Imaz, Juanita Irizar eta Manolita Lasa andereinoa.

Bigarren ilaran: Vicente Gorrotxategi, Fermin Irizar, David Arzelus eta Guillermo Aspiazu,

Eserita, beheko ilaran: Matilde Irizar, Juli Lasa, Trini Elorza, Miren Ezkurdia eta Maria Luisa Azurmendi.

Atal honetan argitaratzeko argazki zaharrak behar ditugu. Deitu 943-889612 telefono zenbakira. Behin erabilitakoan, argazkiak itzuli egiten dira.

MURUA
TABERNA_k
Jai zoriontsuak opa dizkizue!
© 943 16 30 03 ORMAIZTEGI

AIMOSPORT
COMPETICION
Zure kotxeko seguritatea hobetu nahi baduzu, suspensio, direkzio eta frenuetan...
Bisita gaitzazu!
Lehiaketetako esperientzia dugu alde
Zumarralde 8 ☎ 943 88 28 15 ORMAIZTEGI



ITSASO
apaindegia
Jai zoriontsuak denoi!

San Andres, 31 ☎ 943 88 06 24
ORMAIZTEGI

ILEAPAINDEGIA

- ✖ Azken teknika eta estiloak
- ✖ Tratamendu bereziak: ile erorketa, eta abar.

ESTETIKA

- ✖ Depilazioak, elektrikoa
- ✖ Gorputz eta aurpegi tratamenduak
- ✖ Masaia eta solariuma

Baita ere hilean behin sendagilea, M. Esteban (6.180):
gizentasuna, barizeak, meroterapia, e. a.

Kontsulta ezazu



Lan bertikalak S.L.

Kanaloia

Bajanteak

Fatxadak

Pintura

Teilatuak

Tximiniak

...

Tfnoa.: 605 712 018

Ezkurdiategi Etxea

ATAUN



SEMPERE KALEA. 7, 1. LOKALA BEASAIN

TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657

e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com



Migdäla



GABONETAN PROMOZIOA
KONPLEMENTUAK
MODAN AZKEN TENDENTZIAK
EMAKUMEZKOAK - GIZONEZKOAK
ASESORAMENTU PERTSONALIZATUA

